



## ARRIKRUTZEKO LEHOIA

Aranzadi Zientzia elkarteak Arrikrutzeko lehoiari buruzko monografikoa argitaratu du

## ORAIN LIBURUAN

## PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK



# Paseo lekuetan komun publikoak jartzea, aukera bozkatuena, botoen %97rekin

- 1.032 herritarrek parte hartu dute bozketan
- Udalak eta Aztikerrek oso positiboki baloratu dute herritarren parte hartzea
- Bozka gehien jaso dituzten proposamenak aukeratu dira, 500.000 euroko aurrekontua osatu arte. Guztira hamasei.

Udal Aurrekontuetako 500.000 euro hurrengo bi urteetan (2019-2020) zertan gastatu erabakitzeko udalak abian jarri zuen parte hartze prozesua amaierara iritsi da. Azken fasera iritsi ziren 38 proposamenen artean aukeratzeko bozketan 1.150 herritarren bozkek jaso dira (1.032 baliozkoak), eta boto gehien jaso duten proposamenak aukeratu dira, 500.000 euroko aurrekontua osatu arte. Guztira 16. Ondoko orrian ikus daitezke aukeraturako proposamenak, bakoitzak jaso bozka kopurua eta aurrekontuarekin batera.

### ESKERRAK HERRITARREI

Udalbatza osatzen duten bi udal taldeetako ordezkariak eta prozesua koordinatu duen Aztiker enpresak oso positiboki baloratu dute herritarren parte hartzea. Bozketan milatik gora herritarrek parte hartu dute, eta hori oso kopuru altua da, beste herri batzuetako esperientziekin alderatuz. Bozketan ez ezik, prozesuak izan duen fase ezberdinetan herritarrek erakutsi duten interesa, konpromisoa eta parte hartzea azpimarratu dute udal ordezkariak, eta eskerrak eman dizkiete herritar guztiei.

### PARTE HARTZE DATUAK

Guztira 1.150 bozka jaso dira, baina 1.032 baliozkoak (batzuek NAN okerra ipini dute, eta beste batzuek 10 proposamen baino gehiago edo gutxiago hautatu dituzte). 738 bozka postontzietan jaso dira, eta 432 online. Bozken %55 emakumeenak izan dira, eta %45 gizonezkoenak.

### Komunak 2019an

Herritarrek hautaturako proposamenak bi urtetan (2019 eta 2020) egingo dira; erdi eta erdi, gutxi gora behera. Datorren urtean komun publikoak ipiniko dira Olabarrieta-Asentzio eta San Pedro-Madalena ibilbideetan. Bizikletentzako aparkalekuak, zebrabideak argitzea eta Olarako kirol gunea berritzeko lanak ere 2019an egingo dira. Ugarkaldeko jolas gunea 2020an estaliko da.



**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

Berezo Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64



**PAKITA**  
Altzariak

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA**  
Okindegia

Ostiral, asteburu  
eta jai egunetan  
baserrniko agia,  
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



## AUKERATUTAKO PROPOSAMENAK

jasotako bozka kopuruaren arabera

PROPOSAMENA	BOZKAK	AURREKONTUA
Erabilera publikoko komun irisgarriak jartzea. Sei aukera zeuden, eta bozka gehien jaso duten bi guneetan ipiniko da komun bana: Olabarrieta-Asentzio (319) eta San Pedro-Madalena (139).	1.009	110.000 € (komun bakoitza 55.000)
Haurren jolas parke bat estaltzea. Bi aukera zeuden, eta bozka gehien jaso duena estaliko da: Ugarkalde (204)	486	118.000 €
Bizikletentzako aparkaleku estaliak ipintzea ikastetxe eta ekipamendu publikoen inguruetan: kiroldegia-ikastola, kultur etxea, Errekalde eskola, Benediktinak-Azkoagain.	433	60.000 €
Bide segurtasuna hobetzeko zerbrabideak argitzea.	433	20.000 €
Herriko hainbat puntutan hondakinak gaika botatzeko launakako zakarrontziak jartzea: Foruen plaza, Kalegoiena, Unibertsitate zaharra, Kale Zaharra, Kale Barria, Santa Marina, Errementari plaza eta Santa Ana	416	13.500 €
Herriko hainbat tokitan banku edo eserleku gehiago jartzea	359	14.000 €
Zaborra lurrera ez botatzeko kontzientziazio kanpaina bat egitea	306	5.000 €
Olakua auzoko kirol pista edo kantxa hobetzea: margotu, sareak berritu eta eremua argiztatu	304	47.000 €
Herrigunean altuera txikiko rokodromo bat eraikitzeke pareta abt gaitzea, adin eta maila ezberdinetarako aproposa	293	2.000 €
Urdandietako udal ur depositurako baso bidean dagoen lur jausia konpontzea	273	7.000 €
Igotzeko eta oreka mantentzeko jolasekin gune bat hornitzea (sokak, sareak...) 6 eta 14 urte artekoentzat	249	60.000 €
Kartelak, pankartak edo pintadak horretarako egokitutako tokietatik kanpo ez egin edota jartzeko sentsibilizazio kanpaina bat egitea	236	5.000 €
Adineko pertsonen erorketen prebentziorako eta gaitasun fisikoaren mantentzerako jarduerak garatzeko espazio bat egokitzea	233	6.500 €
'Emakumeen Etxea' martxan jartzeko herri mailako diagnostikoa egitea	226	12.500 €
Aire libreko zine emanaldiak eskaintzea (2 emanaldi urteko)	220	5.000 €
Industria-pabilioi hutsen eta hauen erabilera aukeren azterketa egitea	219	12.500 €

**OHARRA:** Emaizta guztiak ikusgai daude [www.onati.eus](http://www.onati.eus)

### Bozkatuenen artean, baina kanpoan geratu direnak

Oinarrietan adostu zen moduan, 80.000 eurotik gora aurrekontua zuten bi proposamen bakarrik hautatu dira, ahalik eta proposamen gehienei aukera ematearren. Horregatik, bozkatuenen artean egon arren, kanpoan geratu dira ondorengoak:

- **Olakua** auzoa irisgarri egitea eta argiteria hobetzea (407 bozka / 120.000€ko aurrekontua).
- Natra paretik **Santa Lutziaraino** bidegorria egokitzea (397 bozka / 118.500€).
- Natur eskolatik **Olapotora** doan bidezidorra egokitzea (387 bozka / 120.000€).
- **Kale Zaharreko** espaloiak konpontzea (385 bozka / 120.000€)
- Errepide ondotik doazen **bidegorriak** barrera bidez babestea (343 bozka / 80.000€)
- Torreaurotik Zañartura doan **erreka ertzeko bidea** berreskuratzea (318 bozka / 106.000€)
- **San Martingo** hariztiko bidezidorra legarrez berregitea eta argiztatzea korrika egiteko erosoago bihurtuz (315 bozka / 115.000€)
- **Lezesarri** auzoan oinezkoentzako espaloia eraikitzea (244 bozka / 120.000€).

**Etxe-Aundi**  
Hotela - Juleta " "

Tel. 943 78 19 56  
[www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)



# IDAHO

Oñatin sasue bat markatu zuen dantzalekua

Lokal batzuetan antolatzen ziren goatekeetatik kanpo, Idaho izan da Oñatin egon den dantzaleku bakarra, herriko gazte askoren bizitza markatu zuena 70.eko hamarkadan eta 80ko hasieran.

Ez dugu aurkitu, tamalez, dantzalekua eta ondorengo diskotekan izaten zen giro bikaina erakusten duen argazkirik, baina herritar askoren gogoan oso bizirik daude oraindik Idahon igarotako une ederrak. "Zenbat bikote egin ote ziren Idahori esker!" esan digu batek baino gehiagok.

## HASIERAN KAFETEGIA

Kale Zaharreko 21ean zegoen Idaho, gaur egun Ongi hotela dagoen lekua. Aurretik, kotxeak konpontzeko tailerra eduki zuten bertan Jose Mari eta Juan Azkune anaiek, baina 1959an Kanpantxora eraman zuten gara-

jea, eta hark utzitako lekua zabaldu zuten Idaho, Jose Mari Azkune eta Milagros Erle senar-emazteek.

Hasieran kafetegia izan zen. Herriko kafetegirik dotoreena, askoren iritziz. Lokal ederra zen eta barrenean, berezitako txoko bat zeukan, bilduagoa, bikoteak goxogoxo egoteko. Karrerak egoten omen ziren mahai haiek hartzeko.

Ematen zituen pintxo ederrengatik ere nabarmendu zen Idaho. Milagrosek presatutako rabek, txanpiek eta, bereziki, orliek arrakasta handia zuten. Baita kafeak ere. "Behin, Errosarixo eguna zen, 1.200 kafe atera genituen" gogoan du Felix Azkunek, Jose Mariren semeak.

Estatu Batuetan euskaraz berba egiten zen estatu bat zegoela, eta haren izena ipini zioten ostatuari. Idaho esta-



Juan Mendikoa, Nikolas Galdos, Juan Miguel Ordoki eta Jabier Elorza, Migs taldeko kideak Idahon

**Catalana Occidente**

Urte amaierako kanpaina

Bizitza-erloko aseguruetan

**%20 ko deskontua**

Motxon 5. behea  
638 16 79 84  
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

**Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

- ✓ Heriotza (deseros)
- ✓ Bizitza (bidai)
- ✓ Osasuna (bald)

Almaraz

Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444  
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei iezaguzu".

«Bilboko Vox dendan erosten nituen diskoak. Fonoteka ona geukan. Gero hemengo taldeei uzten nizkien diskoak»

**Felix Azkune**  
IDAHOko familiakoa

«Pega-pega eginda dantzan egon ostean, aurpegiaren alde bat gorri eta bestea zuri irteten ziren gazteak»

**M<sup>a</sup> Angeles Mendiguren**  
IDAHOko zerbitzaria

«Soldadu nengoela, larunbat gauean Idahon jo eta hurrengo goizerako Madrilera joaten nintzen berriz»

**Xabier Saldias**  
EGAN taldeko musikaria

«Jose Mari Azkunek musika ekipo guztia erosi zigun Madrilen 400.000 pezeta ordainduta »

**Juan Miguel Ordoki**  
Los Migos taldeko abeslaria

tuko mapa bat ere bazegoen beirate eder batean margo-tuta.

### DANTZALEKUA

Oso ekintzailea zen Jose Mari Azkune, beti gauza berriak pentsatzen, eta, hala, urte gutxira, dantzalekua egokitu zuen kafetegiko erreserbatuan. Larunbat eta igande arratsaldetan kafetegia itxi egiten zuten seiak aldera, eta zortzietarako zabaltzen zuten berriro, dantzaleku bihurtuta. Bi saio izaten ziren, arratsaldetako eta gaueko, goizaldekoko 01:30ak arte.

Horixe izan zen Oñatiko lehen dantzaleku "ofiziala", eta erantzuna ere halakoa izan zen. Garai hartako gazteek ez zeukaten aisialdirako aukera askorik, eta trumilka jotzen zuten Idahora, ahalik eta arrimatuen dantza egitera. "Aurpegiaren alde bat gorri eta bestea zuri irteten ziren gazteak, pega-pega dan-tzan ibili ostean" oroitzen du zerbitzari lanetan aritu zen M<sup>a</sup> Angeles Mendigurenek.

### ZUZENENKO MUSIKA

Zuzeneko musika egoten zen Idahon, eta alde horretatik eskola edo plataforma bikaina izan zen garai hartan sortzen ari ziren herriko taldeentzat. *Culpables, Ágaros, Euskaros, Nagis, Hierba Mora, Txanxis, Nekez...* asko izan ziren Idahoko eskenatokira igo ziren taldeak, baina lehenengo urte haietan gehien nabarmendu zen taldea *Los Migs* izan zen, zalantza barik.

Jose Mari Azkunek apustu sendoa egin zuen beraien alde, Juan Miguel Ordokik,



Kale Zaharreko 21ean zegoen Idaho, gaur egun Ongi hotela dagoen eraikinean. (Jesus M<sup>a</sup>Arzuaga funtsa)



Lerro hauen gainean, Arantxa eta Jose Luis Erle zerbitzari lanetan. Ezkerrean, goian, Andres Aranburu agustindarra Idaho kafetegia bedeinkatzen, eta zerbitzariak: Maritxu Ayastui eta Sabina eta Txaro Odriozola. Behean, Jose Luis Erle, Arantxa Galdos eta Juan Kruz Urtaza zerbitzariak. (Jesus M<sup>a</sup>Arzuaga eta Andrés Arlanzón funtsak - Oñatiko Udal Artxiboa)

taldeko ahotsak gogoratzen duen moduan. "Ekipo guztia erosi zigun Madrilen, 400.000 pezeta ordainduta; *Ludwig* bateria, *Fender* gitarrak, *MUSICSON* soinu-nahasgailua... Garai hartako talde handiek (Los Brincos...) zituztenen parekoak. Trukean, hainbat kontzertu eman genituen

**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
www.sanmiguel.coop



Idahon, amortizatu arte”.

Giro ederra egoten zen Idahon, oroitzen du Ordokik. “Beatles edo *Los Mitos* bezalako taldeen abestiak jotzen hasten ginen, mugituagoak, eta gero, poliki poliki, goxoagoak, arrimatuta dantzatzekoak. Horixe nahi izaten zuten gazteek, jakina. Oso gogoan dituzte oraindik oñatiar askok ‘*Cariñosamente te pido que me quieras...*’ eta ‘*Bihotz baten ordean*’ bezalako kantak”.

Oñatin ez ezik, inguruko herrietan ere sona handia lortu zuen *Los Mlgs* taldeak, eta *Bravos* edo *Fórmula V* bezalako taldeen *telonero* gisa jo izan zuten izen handiko beste dantzaleku batzuetan.

Kanpoko taldeen artean *Egan* aipatu behar da. Sortu berria artean, Azpeitiko taldeak sarri jo izan zuen Idahon, Xabier Saldiassek gogoratzen duen moduan. “Oso harreman ona nuen Azkune aita-seeekin, eta lagun handiak egin nituen Idahoko langileen artean ere. Garai hartan soldadutzan nengoen, eta askotan, asteburuetakoa guardia soldaduren batekin negoziatu eta Oñatiraino etortzen nintzen; Idahon goizeko hirurak aldera amaitu, eta goizeko zortzietarako Madrilera buelta, Somosierra pasata, askotan elur artean. Komeria ederrak! Baina gazteak ginen eta beldurrik ez! *Ez dok Amairu*, *Beatles* edo *Eagles* bezalako taldeen abestiak jotzen genituen. Hasieran mugituak eta gero helduta dantza egitekoak, horixe baitzen gazteek arrimatzeko zuten aukera bakarra”.



Lerro hauen gainean Jose Mari Hierro eta Juan Tijera, Idahoko zerbitzariak. Ezkerrean, goian, zerbitzari taldea (M<sup>a</sup> Angeles Mendiguren, Ppili, Marilu Urrutia, Maribel Galdos, Jose M<sup>a</sup> Hierro eta Milagros Erle. Behean Nagis taldea Idahon (Joxe Ramon Aranburu, Aitor Guridi, Jesus Beitia eta Xabier Ugarte).



Goian, ezkerrean, Los Agaros taldeko kideak (Anton Altube, Juanito Ormazabal eta Manolo galiziarra. Eskuman, Albero Kortabarria eta Marilu Urrutia dantzan. Behean, Euskaros taldeko kideak (Jose Luis Bikuña, Bixente Ezeolaza, German Aramendi, Tomas Baños Antigua, Jabier Iraola eta Iñazio Inza). (Argk: Udal artxibo zerbitzuko Jesus Mari Arzuaga eta Andres Arlanzón funtsak eta Plazaola argazkiak)



#### AZKENIK, DISKOTEKA

1960. hamarkadako azken urteetan eta 70.eko hasieran *Boité* edo diskoteka erako lokalen loraldia etorri zen, eta Jose Mari Azkunek ere horren aldeko apustua egin zuen. Kafetegia itxi eta bi solairuko dantzalekua egokitu zuen

1972an. Goian dantzaleku nagusia, eskenatokia, DJaren kabina eta taberna zeuden; behean, dantza egiteko pista txiki bat zegoen, eta buelta guztian bikoteak goxo-goxo egoteko sofa erosoak.

Urte onak bizi izan zituen Idahok. Inguruko herrietatik ere jende asko etortzen zen. "Takilla ireki eta ordu laurden batean agortzen ziren sarrera guztiak" gogoratzen du Felix Azkunek. "400-500 pertsona sartzen ziren".

Hainbat urtez zuzeneko musika jartzen jarraitu zuten, eta azken urteetan diskoak. "Bilbon ikasten ari nintzen, eta bertako Vox dendatik ekartzen nituen azken-azken nobedadeak" gogoratzen du Felixek. "Fonoteka oso ona geneukan. Gero hemengo taldeei uzten nizkien diskoak, beraien moldaketak egiteko".

1980ko hamarkadan disko-teken gainbehera hasi zen, eta Idahok ere 1986an itxi zituen atek. ■



Idahon egindako moda desfile bateko irudiak (Argazkiak: Udal artxibo zerbitzuko Jesus Mari Arzuaga funtsa)



**PROMOZIO BERRIA!**  
**30 etxebizitza**  
(2-3-4 logeekin)

San Martin gunean

**egaralur**  
Construcciones | Eraikuntza Lanak

Informazioa: 689 420 761

\* A5 etxebizitzari dagokion inbegrifa

# ARRIKRUTZEKO LEHOIA

## orain liburuan

Aranzadi Zientzia elkarteak Arrikruzeko lehoiari buruzko monografikoa argitaratu du. Abenduaren 11n aurkeztuko dute kultura etxean (19:00)

**A**rrikruzeko kobako ikurra den leize-lehoiari (*Panthera spelaea*) eskaintako liburua argitaratu du Aranzadi Zientzia Elkarteak. Eurasian eta Ipar Amerikan Erdi eta Goi Pleistozenoan (700.000-12.000 k.a.) bizi izan zen haitzuloetako lehoia (Euskal Herrian duela 300.000 urtekoak dira aztarna zaharrenak), eta Arrikruzekoa da Iberiar penintsulan aurkitu den espezie honetako hezurdura ia oso bakarra, eta hirugarrena Europan. Benetako altxor paleontologikoa, beraz.

1966ko udazkenean aurkitu zuten Arrikruzeko lehoiaren hezurdura Arantzazuko seminarioko bi ikaslek (Iñaki Zubeldia eta Manuel Maroto), eta Jesus Altuna arkeozologoak zuzendu zituen indusketa eta azterketa lanak. Haren arabera, 1,20 metroko altuera eta 250 kiloko pisua zuen lehoi heldu

batena (bere espezieko beste lehoi batzuk baino txikiagoa) dela uste da. Arrikruzten bertan, *Larrayoz* galerian beste lehoi baten izterrezurra aurkitu zen, eta kasu honetan 350 kiloko lehoi batena zela uste dute adituek.

Haitzuloetako lehoiari buruz gaur egun ezagutzen den guztia azaltzen du liburuak: noiz eta non bizi ziren, nolakoak ziren, zer jaten zuten... Espezie honen desagertzearen buruzko hipotesiak ere aipatzen dira, den-dena argazki ederrez ilustratua.

### GEOLOGIA ETA ESPELEOLOGIA

Leize-lehoia da liburuaren ardatza, baina beste gai interesgarri batzuk ere jorratu dituzte bertan. Hala, adibidez, Aizkorriko mendizerraren historia geologikoa azaltzen dute Arantza Aranburu eta Arantxa Bodego EHUko irakasle eta Aranzadiko kideek.

Horrez gain, Gesaltza-Arrikruz koban egin izan diren esplorazioen historia eta sistema karstiko honen deskribapena egiten dute Aloña Mendiko Espeleologia Taldeko (AMET) kideek, eta Arrikruzeko lehoiaren hezurdura aurkitu zutenean bizi izandako gorabehera eta abenturak kontatzen ditu Iñaki Zubeldiak. Lurpeko ondarea gizarteratzeko asmoz, Arrikruzeko 53 Galerian egokitutako pasarela eta bertan egindako ikerketa lanen inguruko informazioa ere ematen da, besteak beste.

### AURKEZPEN EKITALDIA

Abenduaren 11n egingo da liburuaren aurkezpena kultur etxeko zine aretoan (19:00). Liburuan parte hartu duten kideez gain, Atapuercako aztarnategiko eta Burgosko Giza Garapenaren Museoko zuzendaria den Juan Luis Arsuagak hitzaldia emango du haitzuloetako lehoiaren inguruan.





## Omenaldiak

Hiru omenaldi edo aitortza egingo dira Arrikruzeko lehoiari buruzko liburuaren aurkezpen ekitaldian.

### RUIZ DE ARKAUTE

Alde batetik, Felix Ruiz de Arkaute (Anberes, 1927 - 1971) gogoratuko dute, Euskal Herriko eta estatu mailako espeleologiaren garapenean eta modernizazioan egin zuen ekarpen handia aitortzeko.

### A.M.E.T.

Aurten 50 urte betetzen dituen Aloña Mendiko Espeleologia Taldeari ere aitortza egingo zaio, urte hauetan guztietan herriko haitzuloak topografiatzen egindako lan bikainagatik.

### IÑAKI ZUBELDIA

Azkenik, Iñaki Zubeldiari ere esker ona adieraziko zaio. Bera izan zen, Manuel Marotorekin batera, Arrikruzeko lehoiaren hezurdura aurkitu zuena 1966an, eta beti saiatu izan da Arrikruzeko eta inguruko beste haitzuloen edertasuna goraiatzeko.

## Erakusketa

Otsailaren 10era arte Donostiako San Telmo museoan egongo da ikusgai Arrikruzeko lehoiaren hezurdura, Iberiar penintsulan aurkitu den espezie honetako eskeleto osoa.

Ondoko irudian ikusten den moduan, bitrina baten barruan zutik ipini dute hezurdura, eta horrek are ikusgarriagoa egiten du.

Lehoiaren hezurdurarekin batera, haren garaikideak ziren leizeetako artzen, hienen eta asiarrak baten azarnak ere ikusgai daude erakusketan. Denak ere Goi Pleistozeno garaikoak (orain 126.000 - 11.700 urte).

Erakusketa osatuz, beste jarduera batzuk ere antolatu dituzte. Hala, abenduaren 12an, 'Climas, ecosistemas y evolución humana' hitzaldia emango du Juan Luis Arsuagak, Atapuercako aztarnategiko zuzendariak. Jesus Altunak (abenduak 13) eta Iñaki Zubeldiak ere (urtarrilak 24) hitzaldi bana emango dute. Gainera, urtarrilaren 26an familiei zuzendutako tailerra (5€) egingo da, eta lehoiaren garezurra berregiteko aukera izango dute parte hartzaileek.



Donostiako San Telmo museoan dago ikusgai Arrikruzeko lehoiaren hezurdura

## Hitzaldia

### Juan Luis Arsuagaren hitzaldia Oñatin



Giza Bilakaeraren Museoko (Burgos) eta Atapuercako aztarnategiko zuzendaria den Juan Luis Arsuaga Oñatin izango da Arrikruzeko lehoiaren inguruan Aranzadik atera duen liburuaren aurkezpenean eta hitzaldia emango du haitzuloetako lehoiei buruz.

**ABENDUAK 11**  
**KULTURA ETXEAN**  
**19:00**

## Abendua Arrikruzeko koban

### ABENDUAK 6, 7, 8 ETA 9

Bisita gidatuak Arrikruzeko koban (9:30-14:00 / 15:30-18:00). Erreserba egiteko: 943082000 edo arrikruz@onati.eus

### ABENDUAK 30

'Arrikruzeko lehoiaren bila', 19:00etan. Etxeko txikientzako jarduera. Gutxienezko adina 6 urte. Plaza mugatuak. Erreserba beharrezkoa da.



» GERARDO PLAZAOLA ETA MARIBEL HERRERA

# “Estrasburgoko epaiak jota utzi gaitu”

Alberto Plazaola eta Joseba Arregiren senideekin hitz egin dugu, Europar Batasuneko espetze zigorren zenbaketaren eta gai honekin loturik dagoen Estrasburgoko epaiari buruz

**S**antiago Arrospeide, Alberto Plazaola eta Francisco Mujika presoek jarritako helegitearen aurkako epaia eman zuen Giza Eskubideen Europako Auzitegiak urriaren 23an. Epaimahaiak, aho batez, ebatzi du Espainiak ez duela lege urraketarik egin hiru euskal presoek aintzat ez hartuta Frantzia betetako zigor urteak. Estrasburgoko auzitegiak azaldu du Espainiako legerian ez zela zigorrak batzea aukera gisa jasotzen aipaturako hiru presoak zigortu zituztenean. Inork gutxik espero zuen ebazpena da. Alberto Plazaola eta Joseba Arregiren senideek aitortu digute epaiak jota utzi dituela. Beraiekin aztertu ditugu prozesu honen gakoak.

**Nola eta noiz hasi zen Europar Batasuneko nazioetan betetako kartzela zigorren akumulazioari buruzko prozesua?**

2008ko uztailaren 24an, Europako Kontseiluak 2008/675 Esparru-Hitzarmena (Decisión Marco) deitzen zaiona onartu zuen.

Horrela, Europar Batasunak agintzen zien bere baitan zeuden nazioei, Esparru-Hitzarmen hau bakoitzaren lege-testuetara txertatzea edo egokitzea, garbi utziz, besteak beste, preso bati Europar Batasuneko edozein naziotan ezarritako kondenak, akumulatu edo metatu egingo zitzaizkiela bere jatorrizko estatuan betetzen egon zitekeen kondenei. Lege txertatze hori egiteko, Europak ematen zien nazio hauei bi urte pasatxoko epea; hau da: 2010eko abuztuaren 15erainokoa.

**Eta Espainiak ez zuen bete, ezta?**

Hurrengo sei urteetan Espainiak ez zion kasurik egin Europako aginduari eta Europaren Espainiarekiko presioa areagotuz joan zen. Ordurako, 2014ko martxoan, Auzitegi Gorenak ‘Nanclares Bidea’ hartua zuen preso batek gai honi buruz jarria zuen helegitea aztertu zuen.

«Espainiak lege trikimailua egin zuen 2014an, Europako agindua (Europar Batasuneko edozein naziotan betetako zigorrak zenbatzea) ez aplikatzeko 2010eko abuztuaren 15a baino lehen zigortutako presoek, eta uste genuen hori zentsuratu egingo zuela Estrasburgoko epaiak»

Auzitegi honen ebazpena presoaren aldekoa izan zen. Beraz, Frantzia betetako sei urteko kartzela zigorra kontatu egin zitzaion bere kondenaren zenbaketan. Azpimarratu behar da, gai honen inguruan Espainiako fiskaltzak ez zuela epai honen aurkako helegiterik aurkeztu.

Aurreko presoaren epaia ezagutu ondoren, hasi ziren 2014ko urtean zehar Espainiako justiziari aurkezten beste preso batzuen era honetako eskaerak.

**Tartean Alberto Plazaolarena, ezta?**

Bai, hainbat presok aurkeztu zituzten eskaerak Auzitegi Nazionalean; batzuk ukatuak izan ziren, eta beste batzuk onartuak. Onartutakoen artean ‘Nanclares Bidea’ hartua zuen bigarren preso batena eta beste kasuan bi euskal presorenak, tartean Alberto Plazaolarena. Lehen kasuan Auzitegi Nazionaleko Zigor-arlo Gelako Hirugarren Saileko epaileek, eta bigarren kasuan Auzitegi berdineko Lehen Sailekoek, justifikatzen zuten euren epaia Europako 2008/675 Esparru-Hitzarmeneko oinarritzko printzipioetan. Hau da: esaten zuten Frantzia betetako kondenak presoek kontutan hartu behar zitzaizkiela.

Honela, eta Espainia bere legedian Europako agindua txertatzen ari zen unean, lehen aipaturiko Auzitegi Nazionaleko bi Sail horietako epaileek erabaki zuten, hiru preso horien kondenak kontaketa berri bat egin ondoren, preso horiek aske uztea. Hiru preso horietako lehena 2014ko abenduaren 1ean irten zen kalera eta beste biak 2014ko abenduaren 4an. Hau honela gertatu ondoren, egun gutxira

**ARANBURU  
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**

*Aran Hernandez*

Zure ETXEA eguneratu gurenenko inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua ematzeko

**626 114 382**  
aranhernandez@aranhernandez.com





Maribel Herrera,  
Joseba Arregi  
'Azipleta'ren koinata,  
eta Gerardo Plazaola,  
Alberto Plazaola  
'Aitto'ren anaia.

jakin genuen, martxoan "Nanclares Bideko" lehen presoarekin gertatu zen bezalaxe, bide horretako bigarren presoaren aldeko epai hau ere ez zuela Fiskaltzak inora errekurrituko.

Aldiz, beste bi presoaren epaiak eman zirenean, Espainiako Gobernuak, Fiskaltzako eta beste hainbat elkartetako pertsona batzuek ez zuten inola ere ondo jaso bi preso hauek askatzearen aldeko erabakia. Horrela, eta oraindik bi preso horiek kartzelatik irteteko zeudenean, Auzitegi Goreneko Fiskaltzak iragarri zuen bi preso hauen epaiak errekurrituak izango zirela Auzitegi honetan. Geroago ikusi zenez, 2015eko urtarrilean Fiskaltza horrek helegite bat sartu zuen Auzitegi honetan, aske utzitako bi preso horiek berriro espetxeratzeko agindua eskatuz. Helegite hori 2015eko martxoan ikusi zen Auzitegi Gorenean eta honen ebazpena, etxekoek beldur ginen bezalaxe, bi pertsona hauek berriro kartzelara itzultzearen aldekoa izan zen.

**Zer deritozue Fiskaltzaren bi jarrera edo jokabide ezberdin hauen aurrean?**

Uste dugu kritika bat egitea merezi duela prozesu honetan parte hartu izan zuten Espainiako hainbat epaile eta fiskali, eurei

komeni zitzaizkien oportunitate irizpideak erabili izanagatik bi horietako lehen kasuan, eta mendeku egarri hutsa erakusteagatik bigarren kasuan. Honelako bi kasu berdinen aurrean....., zirkunstantzia juridiko berdin-berdinak ematen direnean....., ez zen erabaki berdin bat hartu behar, adibidez fiskaltzaren partetik? Ondo al dago epai batzuk ez errekurritzea norbaiten interes edo mesederako, eta beste epai batzuk errekurritzea beste norbaiten kalterako?

Momentu hartan izandako bizipenek eta baita oraingo beste askok ere, erakusten digute Espainiako justizia deitzen diogun horrek sarritan zenbaterainoko zentzugabekeriarekin jarduten duten, batez ere, agerian gelditzen direnean epai eta erabaki askoren inkoherentziak, gorabeherak, kontraesanak, neurtzeko forma ezberdinak, bidegabekeriak, eta abar...

**Espainiako gobernuak (PP zegoen orduan agintean) lege-trikimailu bat burutu zuen, beste behin, euskal presoaren zigorrak luzatzen jarraitu ahal izateko.**

Bai, 2014ko urtea oso aurrera zihoala,

(Hurrengo orrira)

**«Estrasburgoko epaiaren eragina ez da bukatzen hiru preso hauen helegiteak bertan behera uztearekin; Frantzian kondenak betetako beste 60 bat presoaren egoerari ere eragiten die, kartzela urteak murrizteko aukera zapuzten duelako»**

 **Mekalki**  
S. Coop. mekanizatuak



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)

Espainiak onartu zuen Europako nazioetako epai kondenen konputoei buruzko, 2014ko abenduaren 3an indarrean sartu zen 7/2014 Lege Organikoa.

Azpmarratzekoa da Lege honek izugarritzko bi "tranpa" dituela bere baitan, bata 14. artikuluan eta bestea xedapen gehigarrian. Xedapen hau sartua izan zen azken momentuan Espainiako Senatuan, Alderdi Popularraren (PP) kabuz eta baita ere onartua euren gehiengoaz. Xedapen gehigarri horrek honela dio: "Lege hau aplikatu ahal izateko, ez dira inola ere kontutan izango 2010eko abuztuaren 15a baino lehenagoko, Europar Batasuneko edozein nazioetako Auzitegi batek ezarritako kondena".

### Zer esango zenukete Estrasburgoko Europako Giza Eskubideen Epaitegiak izan duen jarreraz?

Lehen aipatutako bi presoak kartzelara itzultzearen aldeko ebazpenaren berri eman zenetik, bizkortu egin ziren bi hauen eta beste baten Estrasburgorako helegiteak, izan ere, hiru preso horietako bik konplitu berri izango zuten beren kondena, kontutan izanda, jakina, Frantzia betetako urteak zenbatuak izango zitzaizkiela.

Harrezkero, pasa den urriaren 23an ezagutu genuen Estrasburgoko epaia, Espainiak gai honi buruz egindako gehiena bermatuz. Egia esan, epai honek kolpe handia eman digu. Ez genuen uste epaileek erabaki hori hartuko zutenik. Pentsatzen genuen Estrasburgoko epaitegiak zentsuratuko zituela Espainiak bere 7/2014 lege organikoan egindako trikimailuak, batez be 2010eko abuztuaren 15etik honuntzako exijentzia (edo lerro gorria) jarriz euren lege berria aplikatu ahal izateko. Espero genuen Espainiak izan zuen jarrera horrekin, Epaileek garbi ikusiko zutela Europak onartutakoa praktikan ezerezean gelditzen zela. Denok dakigu, eta Espainiak ere bai, euskal presoek Frantzia jasotako epai gehienak eta bertan betetako kartzela zigorrak, 2010eko urtea baino aurrerakoagoak direla.

Epaileen sententzian garbi ikusten da, Estrasburgok ez duela baloratu Espainiak ondo aplikatzen duen kondeneei buruzko Europako doktrina. Pentsa dezake norbaitek

**«Eskertuko genieke herritarrei, une honetan presoenganako elkartasuna erakustea, eta zirkunstantziek hala eskatzen dutenean (eskubideen urraketa kasuetan, bereziki) jarrera aktiboa izatea eta hori mantentzen saiatzea»**

**«Joseba Arregik Frantzia betetako 10 urteko zigorra zenbatu ezean, 2028an aterako litzateke kalera, 82 urterekin»**

lan handia egin duela epaileen atentzioa beste foku batzuetara eramaten.

### Gogorra izan da kolpea, ezta?

Epai honek jota utzi gaitu bai! Etxean falta zitzaizkigun pertsona horiek (Joseba eta Alberto gure senideak), laister gure artean ikusteko itxaropenez geunden. Orain, epai honekin, euren esperoan jarraitu beharko dugu.

Gainera eta zoritxarrez, erabaki honen eragina ez da bukatzen hiru preso hauen helegiteak bertan behera uztearekin. Frantzia kondena bete dituzten beste 60 preso gutxi gorabehera hor daude, euren epaiketa edo helegiteen zain, gehienak bere momentuan Estrasburgora bideratu zirenak. Epai hau ondo atera balitz, 12 presok etxean egon beharko zuten eta besteek kartzela zigorren zenbaketan murrizketa dexentea izango zuten.

Joseba Arregiren egoera ere bereziki larria da, adinagatik. Frantzia betetako hamar urteko zigorra kontabilizatzen ez bada, 2028ra arte egon beharko luke kartzelan; hau da 82 urterekin aterako litzateke.

### Hemendik aurrera zer?

Badago Estrasburgoko Epaitegiko Gela Gorenara helegitea egiterik, baita Luxenburgon kokatuta dagoen Europar Batasuneko Justizia Epaitegira jotzea, eta Espainiak 7/2014 Lege Organikoa aldatzeko aukera ere hor dago. Dударik gabe, batzuek besteak baino zailtasun eta konplexutasun handiagoa dute. Edozein modutan, uste dugu aurrera begirako itxaropena ez dela galdu behar eta denbora bat pasatu ondoren, Estrasburgoko epai hau edo Espainiak Legea indargabetuak izango direla.

### Herritarrei ezer esaterik edo eskatzerik nahi?

Eskertuko genieke une honetan herritarrei, presoenganako elkartasuna erakustea. Baita ere eta une jakin bateko zirkunstantziek horrela eskatzen dutenean (presoen eskubideen urraketan kasuetan, bereziki), jarrera aktiboa izatea eta hori mantentzen saiatzea. Ulertu dezatela herritarrek, eurek emandako presoenganako erantzunaren arabera, presoek askoz baikorrago edo askoz ezkorrago biziko dutela euren espetxealdia. ■



Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu?

Tel.: 943 71 61 60  
Mug.: 610 381 244  
www.etxian.net  
Etxian f



carpintería  
**GARIBAI**  
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com  
www.garibai-aroztegia.com

Gure beharra baduzu,  
ondo-ondoan gaituzu.  
**Arrasaten.**


Hain ondo zaindu nahi  
zaitugunez, Arrasaten bertan  
ere artatuko zaitu Zuatzu  
klinikako espezialista-taldeak,  
20 urtetik gorako esperientzia  
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.  
Jaio aurreko diagnostikoa.  
Bularretako patologia.  
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)  
20500 Mondragón  
943 792 018



[www.clinicazuatzu.com](http://www.clinicazuatzu.com)



# Elurteei aurre egiteko jarduketa plana prest dauka udalak

**Elurra 1.000 metrotik behera iragarrita dagoen aldiro aktibatzen da protokoloa**

Abenduaren 21ean sartuko gara neguan, eta udalak prest ditu, dagoeneko, elurteei eta izozteei aurre egiteko protokoloa eta baliabideak. Euskalmet-ek elurra 1.000 metrotik behera iragartzen duen aldiro aktibatzen da udal mailako Elur Plana, errepi-deak eta oinezkoen bideak lehenbailehen garbitzeko eta oinarrizko zerbitzu eta azpiegiturak bermatu ahal izateko.

## BALIABIDEAK

Baliabide materialei dago-kienez, traktore bat eta *Pick Up* motako hiru ibilgailu ditu udalak, herriguneko eta baserri auzoetako bideak garbitzeko. Horiez gain, herriguneko oinezkoen ibilbideak garbitzeko *muck-truck* erako lau esku-makina motordun ere baditu.

Eta izozteei aurre egiteko, gatza ere prest dauka udalak biltegian, 65 tona inguru.

Giza baliabideei dagokie-

nez, unean uneko beharren arabera, udal brigadako lantaldea, kale garbiketa zerbitzuko langileak eta lorezaintza zerbitzukoak aritzen dira bideak garbitzen. Udalak hitzarmena dauka lorezaintza enpresarekin, elurra beheraino egiten duenean, garbitze lanetan lagun dezaten.

## KOORDINAZIO MAHAIA

Baliabide horiek guztiak egoki

eta azkar lanean jarri ahal izateko, koordinazio talde bat dauka izendatuta udalak. Udaltzainburua, zerbitzuetako eta mendi-nekazaritzako udal teknikariak, udalaren brigadako burua eta kale-garbiketa zerbitzuko arduraduna batzen dira bertan.

Elur iragarpenak dauden aldiro batzen da taldea, ibilgailuak eta bestelako makinak prestatu eta lantaldeak koordinatzeko.

Elurra astebururako iragartzen bada, ostiralean egiten du bilera koordinazio taldeak, baliabide pertsonal eta material guztiak prest egongo direla ziurtatzeko.

## HERRIGUNEA LAU ZATITAN

Elurra beheraino egiten badu, baliabide guztiak aktibatzen dira. Goizeko 5.30etarako hasten da ibilgailu bat lanean, herriguneko bide-sarea eta, bereziki, arazotsuak izan ohi diren puntuak garbitzeko (kanposanturako aldapa, San Lorentzoko eraztuna, San Martin eta Ugarkaldeko aldapak...) lanera doan jendeak eta lineako autobusek arazorik izan ez dezaten.

Gainerako baliabideak goizeko 7etan jartzen dira martxan. Oinezkoen bideei dagokienez, zerbitzu-guneei ematen zaie lehentasuna: anbulatorioa, ikastetxeak, San Martin egoitza, autobus geltokiak...



Pick Up ibilgailuetako bat Gomiztegirako bidea zabaltzen

Gainerakoan, herrigunea lau eremutan antolatuta dago, eta lantalde bakoitzak ardatz edo itinerario bat garbitzen du: **1.** San Martin - Olakua - San Lorentzo - Ugarkalde; **2.** San Juan kale - Foruen plaza eta inguruak - Errekalde; **3.** Lizaur - Kale Zaharra - Kasablanka; **4.** Bidebarrieta - Ultzezin - Arantzazuko Ama.

### LANDA AUZOAK

Beharren arabera, traktorea eta *Pick Up* motako bi ibilgailu ibiltzen dira landa auzoetako bideak garbitzen. Behetik gora hasten dira. Herrigunean elurrik egin ez badu, eguerdirako iristen dira auzo guztietara, eta kalean elurra egin badu, arratsalderako.

Asteburuetara begira, Arantzazuko aparkalekua ere garbitzen dute, jendea joan ahal izan dadin elurraz gozatzera.

## **ELURRARI AURRE EGITEKO BALIABIDEAK**

### **➔ Baliabide materialak**

- Traktore 1 eta Pick-Up 4x4 motako 3 ibilgailu, elurra kentzeko pala eta gatza zabaltzeko ontziarekin
- Oinezkoen bideak garbitzeko muck-truck erako 4 esku-makina motordunak



### **➔ Giza baliabideak**

- Koordinazio taldea (udaltzainburua, udaleko zerbitzu eta mendi-nekazaritza arloetako teknikariak, eta brigada nahiz kale-garbitzeta zerbitzuko buruak)
- Udal brigadako lantaldea (9-10 lagun)
- Kale garbitzaileak (4-5 lagun)
- Lorezantza lenpresako langileak (4-5 lagun)



### **➔ Gatza**

- 65 tona gatz ditu udalak biltegian erabiltzeko gertu
- Gatza behar duten partikularrek udaltzaingoa eskatu behar dute (943081000)



### **➔ Larrialdietako abisuak**

- Larrialdi kasuetan udaltzaingora (943081000) bideratu behar dira telefono deiak. Udaltzainak arduratzen dira unean unean behar diren baliabideak koordinatu eta mobilizatzen.



# Kafe OTAMENDI Taberna

Beste urtebetez, gudan erakutsi  
duzuen konfidantza eskertu nahi dizuegu



**GABON JAI ZORIONTSUAK!**

Martzelino Zelaia 1 · Tel.: 943 78 19 49



## Euskal Herriaren etorkizunarekiko konpromisoa berretsi du EUSKO IKASKUNTZAK

Iñigo Urkullu, Uxue Barkos eta Rene Etxegarai, Euskadiko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko Elkargoko lehendakariak, eta EAEko hiru diputazioetako ahaldu nagusiak bat eginik, argazki ederra utzi zигun Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenako ospakizunak. Erakunde guztiek babesa berretsi zioten Eusko Ikaskuntzari, eta Euskal Herriak dituen erronkei aurre egiteko proiektu partekatu baten alde indarrak batzeko konpromisoa adierazi zuten.



## Espazio publikoen kudeaketarako formula ezberdinak aztergai

► Oso emankorrak izan dira **Eltziari Eragiten** jardunaldiak

Udalak eta ELTZIAko erabiltzaileek **Eltziari Eragiten** jardunaldiak antolatu zituzten azaroaren 16 eta 17an, espazio publikoetan kudeaketarako formula berrien inguruko hausnarketa egiteko.

2013 urtean proiektua martxan jarri zenetik hona Eltzia egitasmoak bere ibilbidea egin du eta bidea bera ikasketa prozesu izaten dabil proiektuko partaide guztiontzat. Jakinik beste herri batzuetan antzeko proiektuak martxan daudela, esperientzia horiek ezagutu, jakintzak elkarbanatu, zalantzak eta ideiak partekatu eta sinergia berriak sortzeko asmoz antolatu ziren azaroko jardunaldi hauek.

Azaroaren 16an, goiz partean, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako udaletako hainbat ordezkari hurbildu ziren Eltzia. Hauetako askok Eltzia antzeko egitasmoak dituzte martxan euren udalerrietan, eta beste batzuk, berriz, tankera honetako ekimenak martxan jartzeko gogoan hartu beharrekoak eza-gutzeko asmoz bertaratu ziren. Goiz oparoa izan zen eta aurrera begira lanean jarraitzeko interesa agerian geratu zen.

Arratsaldean gertuko eta kanpoko esperientzietatik zuzenean ikasteko aukera egon zen, finantziarioa, komunikazioa, komunitatea egitea, eta bestelako gakoengatik inguruan. **Eltziaz** gain,



**Bentaranoa (Getxo), Espacio Vecinal Arganzuela (Madril) eta Plazara (Iruñea)** proiektuak ezagutzeko aukera egon zen.

### ELTZIA EGUNA

Azaroaren 17an bisita gidatua egin zen Eltzia eraikina herritarrei erakusteko, egitasmoa herrira zabaltzeko eta Eltzia elkarrekin eta talde ezberdinek garatzen dituzten lanak ezagutzera emateko. Herritar asko gerturatu zen bisita gidatura.

Bestetik, "Topagunea" espazioaren erabilera diseinatzeko ideazio tailerra burutu zuten Eltzia erabiltzaileek, sarrerako espazio zabalari bizitza ematen hasteko erabilera eta funtzioak pentsatu eta diseinurako aukerak planteatuz.

Eltzia Egunari bere jai-giro kutsua emateko bazkari eta bazkaloste alai batekin borobildu zen eguna.

## Gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatzeko diru laguntza deialdia

Gizarteratze eta laneratzeko prozesuetatik datozen pertsonak kontratatzeko diru laguntza lerro berria jarri du abian udalak aurreneko aldiz, Bidebarri Enplegu Zentroa eta Ulma Fundazioarekin elkarlanean.

Helburua da, gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen kontratazioa sustatzea. Horretarako, 20.000 euroko funtsa jarriko dute udalak eta Ulma Fundazioak.

Kontratatzen diren pertsonak gutxienez 6 hilabeteko antzinatasuna izan beharko dute Oñatiko erroldan, eta kontratuak gutxienez 6 hileko iraupena izan beharko du (lanaldi osokoa edo partzialekoa). Enpresa kontratatzaileak 3.000€ko laguntza jasoko du lanaldi osoko eta sei hilabete edo luzeagoko kontratu bakoitzeko. Informazio gehiago udaleko Enplegu zerbitzuan (Bidebarrieta 12 / 943037700).

### LANGABETUAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

Illo berean, udalak diru laguntza lerro bat dauka langabetuak kontratatzen dituzten herriko enpresa ertain eta txikientzat (-50 langile). Informazio gehiago, udaleko Enplegu zerbitzuan.



# TXARTEL-MAKINA DIGITALA

Kultur ikuskizunetako sarreren  
aurre-salmentarako makina ipini du  
udalak udaltzaingoaren eraikinean



Udaleko Kultura eta Gazteria sailek antolatzen dituzten ekitaldietako sarreren aurre-salmenta egiteko makina ipini du udalak udaltzaingoaren eraikinean, komun publikoan ondoan.

Egunero, goizeko 8:00etatik iluntzeko 21:30ak arte egongo da erabilgarri leihatila digital berria, eta bertan eskuratu ahal izango ditugu kultur etxeko zine emanaldietako eta Santa Anan nahiz Gaztelekuan programatzen diren antzerki, kontzertu eta bestelako ikuskizunetarako sarrerak, ilaran zain egon barik. Hori bai, aurrez erositako txartelek 0,50 zentimoko gainkostua izango dute, eta kreditu txartel bidez bakarrik ordaindu ahal izango da, ez esku-dirutan.

Udalaren kultur agenda guztia kontsultatu ahal izango dugu leihatila digital berrian, egunez egunekoa, edo ekitaldi motaren arabera: zinea, antzerkia eta kontzertuak. Interesatzen zaigun ekitaldia hautatu ondoren, jarlekua aukeratu eta sarrera erosi ahal izango dugu bertan. Aurrerantzean sarrera guztiak numeratuak izango dira.

## INTERNETEN ETA TXOKOLATEIXAN

Plazako txarteldegi digitalean ez ezik, udalaren webgunean ere ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)) badago sarrerak online erosteko aukera, ondoko irudia duen banerrear sakatuta. Eta Txokolateixan ere eskuratu ahal izango dira udalaren kultur ekitaldietarako sarrerak. Hemen esku-dirutan ordaindu ahal izango dira.

Aurrerantzean, sistema digitalean bidez saldu gabeko sarrerak soilik jarriko dira salgai takilan.



[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)  
atarian ere badago  
sarrerak online  
erosteko aukera



## Kiroldegia berritzea eta Olaiturri estaltzea, udalak 2019an egingo dituen inbertsio nagusiak

Datorren urteko udal aurrekontuen proposamena ezagutzera eman du EH Bilduren gobernu taldeak. Orotara, 22,1 milioiko aurrekontua da, sarrera eta gastuak parean dituen, eta 612 mila euroko aurrezki arrunta aurreikusten duena.

Inbertsioen atalean, 2,5 milioi euro bideratuko dira kiroldegia berritzera, milioi bat Olaiturriko gunea estaltzera, 250 mila euro Araotzeko ostaldea eraikitzen, eta 240 mila San Lorentzoko 9. areako urbanizazioa berritzera, inportanteenak aipatzearen. Gainera, 250 mila euroko diru atala bideratuko da Partaide-tzazko Aurrekontuetan herritarrek aukeratutako proposamenetako batzuk gauzatzeko. Olarako urbanizazioa berritzeko proiektua ere idatziko da (30 mila euro).

## HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA

Aipatzekoa da, bestalde, HAZ (Herritarren Arreta Zerbitzua) ipiniko duela martxan udalak, herritarrei zerbitzu integrala eta gertuko eskaintzeko xedez, Berdintasun arloa indartuko dela Berdintasun Kontseilua eratuz eta teknikari kontratatuz, eta mugikortasun arloan 'Oñatiko Gerriko Berdea' formalki izendatu eta katalogatuko dela. Ongizate arloan, gizarte laguntzak eta arlo psikosozialekoak (drogomenpekotasunak...) indartu egingo dira.

Gobernu taldeak oposizio arloko alderdiaren esku utzi du aurrekontu proposamena, eta ustekaberik ez bada, abenduaren 5eko osoko bilkuran onartuko dira 2019ko udal aurrekontuak.

## DEIALDIA

### Ganaduaren larreratzeko kanpaina - 2019

Datorren urtean ganadua Aloña-Urbieta-Oltzan larreratzeko asmoa duten herriko ganaduzaleek abenduaren 31 baino lehen egin behar dute eskaera udal bulegoetan.

Artia-Txirikilaleku-Aitzgainera ganadua eramaten duten abeltzainek ere jakinarazi behar dute udaletxean.

Ganaduari hazteria eta *tricomino* *bovina* gaitzen aurkako tratamendua egin izanaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute abeltzainek.

Udalak eta Aloabel elkarteak antolatzen dituzten auzolanetan parte hartzen duten ganaduzaleei %100eko hobaria aplikatuko zaie tasetan.

# Izaro Elorza aurkeztu dute EH Bilduren alkategai izateko



Eremu sozial eta instituzionalean diharduten hainbat herritarrek babesten dute Izaro Elorzaren hautagaitza.

Alkategaiak proposatzeko barne prozesua egiten ari da Oñatiko EH Bildu, eta horren barruan Izaro Elorza Arregi aurkeztu dute alkatetzarako hautagai. Telekomunikazio ingeniaria da Elorza, 35 urte ditu eta bi alabaren ama da.

Mikel Biain, egungo alkateak, hainbat zinegotzik, eta gizarte mugimenduetan ari diren hainbat herritarrek babestu zuten Elorzaren hautagaitza. Biain alkateak ofizialki jakinarazi zuen ez duela bere burua aurkeztuko. Bi agintalditan egindako lanaz harro dagoela esan zuen, eta eskerrak eman zizkien zortzi urte hauetan inguruan lanean izan dituen pertsona guztiei. "EH Bilduren proiektua are indartsuagoa da orain, eta Izaro Elorza hautagai ezin hobea da proiektu, erronka eta garai berriei erantzuteko" gaineratu zuen.



Elorzak esan zuen ohore bat dela esparru ezberdinetan lanean ari diren pertsonen babesa jaso izana, eta EH Bilduk ordezkatzeko duen kultura eta sentsibilitate desberdinen arteko ekintza-batasuna erakartzen duela. "Pertsona guztien eskubide sozialak, ekonomikoak, politikoak eta kulturalak bermatzeko tresna bezala ikusten dut EH Bildu".

## ABENDUAREN 15EKO BILERA

'Haritu' prozesuaren baitan, Ekintza Plana osatzeko tailerra egingo du EH Bilduk abenduaren 15ean (Gaztelekuan, 10:00). Beste hautagairik ez bada, egun horretan izendatuko dute ofizialki Elorza alkategai. Urtarrila amaierarako Herri Proiektua amaituta izatea espero dute, eta bertatik eratorriko da hauteskunde programa.

## JARDUNALDI SOZIOPOLITIKOAK

### Errealitate soziala mintzagai hartu eta berau kuestionatzea da helburua

Urtero bezala, gai ezberdinen inguruko gogoetak partekatu eta eztabaidatzeko jardunaldiak antolatu dituzte Antixena gaztetxean. Hasteko, Igor Tomek hitz egingo du teknologia digitalak gure pentsamenduan sortzen dituen aldaketan inguruan ariko da, abenduaren 13an. Hurrengo egunean, Iraitz Agirrek XVI. mendeko euskal emakumeen inguruko historiak eta memoriak jardungo du. Hitzaldi hau kultur etxean izango da; Gaztetxera joatea oraindik ere kostatzen zaion jendeari keinu bat egin eta, nolabait, gaztetxea herrira "zabaldu" nahi dute horrela.

Hitzaldiaren ostean pintxo-afari osasuntsua egongo da gaztetxean, eta sabela berdindu ostean, *Heal* dokumentala emango dute bertan. Buruaren botereari buruzko ikus-entzunezkoa da.

### INDUSTRIA MILITARRA EUSKAL HERRIAN

Larunbat goizean autoformakuntza saioa egongo da, Aimar Uribealgok gidatuta. 'Gerra ona da negozioentzat' liburuan oinarrituta, Euskal Herriko industria militarren inguruan jardungo dute. Zenbat enpresa dira gurean? Zer sortzen dute? Ze inplikazio dute gure erakunde publikoek?...

Bazkalondoan, hitzaldi-tertuia egongo da. Aran eta Mikel oñatiarrek azalduko dute nola kudeatzen duten beraien haurren heziketa. Orbela baso eskolako kideak dira eta haurra bertara eramatean dute.

Ondoren, Gorka Menendez etnobotanikoak hitz egingo du Euskal Herriko baserriarrez: zer diren eta nola aldatu diren historian zehar.

Domekan mendi irteera egingo da Makien kobara, eta arratsaldean Euxebe Osak hitz egingo du ikastolaren hasierako urteetan kolektibo (gurasoak, irakasleak...) eta instituzio ezberdinen artean (eliza, alderdi politikoak...) izan ziren gatazken inguruan.

## JARDUNALDIXAK ANTIXENA GAZTETXIAN

**Abenduak 13, osteguna.**  
18:30tan: Hitzaldixa: "Internet eta teknologia digitalen eragina gure pentsamenduan: subjektu garaikidea garatzen". Igor Tome.

**Abenduak 14, ostirala.**  
18:30tan, Kultur Etxean\*: Hitzaldixa: "Euskal emakumeen historiak eta memoriak. Bidala bat XVI. mendean barrena". Iraitz Agirre. Emagin.  
21:00tan: Pintxo-afari osasuntsua gaztetxean.  
22:00tan: Dokumentala: "Heal". Buruaren ahalmena gaixotasunen aurrean.

**Abenduak 15, zapatua.**  
16:00tan: Autoformakuntza: "Egungo armagintza Euskal Herrian". Aimar Uribealga. Oñatiko Multibertsitateko Errektorea.  
14:00tan: Bazkaixa gaztetxean.  
15:30tan: Hitzaldi-tertuia: "Baso Eskola bateko esperientzia". Aran eta Korta. Orbelako biak.  
17:30tan: Hitzaldixa: "Kapitalismoaren garapena euskal nekazarieraren mitotik klase gatazkara". Meren.

**Abenduak 16, domekia.**  
9:00tan: Gaztetxetik mendi irteera Makien Kobara. Jatekua eruan.  
17:30tan: Hitzaldixa: "Oñatiko ikastolaren hasierako gatazkatsua". Euxebe Osa. Txantxiku Ikastolako hasierako irakaslea.

\*Oharra:  
Jarduerak  
danak  
Oñatiko  
Gaztetxian  
izango dira,  
ostiraleko  
Kultur  
Etxeko  
hitzaldixa  
izan enik.

Auzi sozialen inguruko kezka duten  
herritar guztiak daude gonbidatuta

## 'Merkatari' aplikazioa martxan da Oñatin

► Telefono mugikorrera dohainik deskargatu daitekeen aplikazio honetan herriko denda eta zerbitzuetako eskaintza aurkituko dugu

'Bertan erosi, bertan saldu, bertan bizi!!!' lelopean, komertzio txikiari laguntzeko asmoz sortu den *Merkatari* aplikazioa martxan da Oñatin. Dohainik jaitsi daiteke *Google Play* eta *App Store* atarietatik, eta bertan aurkituko dugu Oñatiko denda eta zerbitzu gehienetako eskaintza. Ez da online salmenta egiteko aplikazio bat, komertzioen eta herritarren arteko harremana eta komunikazioa hobetzeko tresna bat baizik. Herriko denda eta zerbitzuetako eskaintza eta promozioak jaso, produktuak erreserbatu, tiketak gorde, edota bezeroek egiten dituzten balorazioak ezagutzeko aukera izango dugu, besteak beste, *Merkatari* aplikazioaren bidez.

### TRIBIAL JOKOA, 1.000 €-KO SARIEKIN

*Merkatari* aplikazioa sustatzeko asmoz, *Tribial* erako jokia egingo da abenduaren 15ean. Hamasei urtetik gorako herritarrek parte hartu ahal izango dute eta 3 sari (500€, 300€ eta 150€ko erosketa bonuak) eskuratu ahal izango dituzte, *Merkatari* ekimenarekin bat egin duten herriko denda eta zerbitzuetan gastatzeko. Horrez gain, solasaldiak egingo dira herriko kolektibo ezberdinekin (jubilatua, ikasleak...) tokiko merkataritzaren garrantziaz eta egoeraz hausnarketa egiteko.



Google Play-en edo App Store-n aurkituko dugu aplikazioa

## Kale garbiketa zerbitzuaren balorazioa egiterakoan datu partzialak erabili izana egotzi dio EAJk udal gobernu taldeari



EAJren udal taldearen ustez, udal gobernu taldeak datu partzialak erabili ditu kale-garbiketa zerbitzuaren publikazioaren balorazioa egiterakoan. Horregatik, prentsaurrekoa eman zuen joan den astean "datu errealak azaldu eta isildu diren zenbait kostu" mahai gainean jartzeko. "Herritarrek eskubidea

dute kostu errealen berri jakiteko, manipulaziorik gabe, kale-garbiketa zerbitzuaren sistema aldaketa baloratu ahal izateko" adierazi zuen Lourdes Idoiaga bozeramaleak.

Jeltzaleen ustez ez da egia urtean 164.684 euroko (%30) aurrezkoa dagoenik, gobernu taldeak

adierazitakoa gezurtatuz. "EH Bilduk egin duen alderaketa kalkulu teorikoa da, hipotesi batean oinarrituta, baina udal kontuhartzailearen txostenak jasotzen duenez, zerbitzuaren urteko kostu erreala 567.312 eurokoa da, FCCk eskaintzen zuenean baino 6.000 euro (%1) merkeagoa".

### KALTE-ORDAINAK

Bestalde, sistema aldaketaren ondorioz, udalak makineria eta ibilgailuetan egindako inbertsioa (258.583€) ezkutatu izana egotzi dio EAJk gobernu taldeari, "aurreko sisteman FCCk bere gain hartzen zituen inbertsioak, alegia".

Azkenik, zerbitzua publikatzearen ondorioz auzitegira jo zuten FCCko langileei ordaindu beharreko kalte-ordaina (224.599€) eta makineriagatik FCCri ordaindu beharrekoa (78.069€) isildu izana egotzi diote gobernu taldeari. "Datu horiei erreparatuta, argi dago hamarkadak beharko ditugula sistema berria amortizatzen, eta ez 16 hilabete, EH Bilduk dioen moduan" azaldu dute jeltzaleek.

 **ZURICH**  
M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela  
Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**  
ETXEETAN ERA GUZTETAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LEMIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...  
DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA  
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO  
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA  
695 78 91 04 - 943 04 47 77

# XI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Epaimahaiaren hiru sari eta herritarrena banatuko dira aurten

Udaleko Sozioekonomia sailak XI. Erakusleho Lehiaketa antolatu du, Txanda elkartearen laguntzarekin. Herriko denda eta zerbitzu guztiei luzatu zaie parte hartzeko gonbita. Erakuslehoek prest egon beharko dute abenduaren 6rako, eta eta hala mantendu beharko dira hilaren 31ra arte, gutxienez. Erakuslehoan denda-zerbitzuaren ohiko produktuak jarri beharko dira.



## 1.500€ SARITAN

Lau sari emango ditu aurten udalak. Lehenengo hirurak (500€, 300€ eta 200€) epaimahaiak aukeratuko ditu. Gipuzkoako Bazkundeko teknikari batek eta erakusleho-apainketa arloko profesionalak osatuko dute epaimahaia, eta irizpide hauek hartuko dituzte kontuan balorazioa egiterakoan: konposizioa, argiztapena, koloreak eta originaltasuna. Aurten merkataritza sektoretik jasotako eskaera bati erantzuna emanez, orain arte sarietara bideratu den aurrekontuaren zati bat, merkataritza sustatzeko helburua izango duen beste ekimen batera bideratuko da Gabon garaian.



Amalur belardendak irabazi zuen iaz lehen saria. Goian daude gainerako sarituak, udal ordezkariekin batera

## HERRITARREN SARIA

Epaimahaiaren sariez gain, Herritarren Saria ere (500€) emango da. Bozka gehien jasotzen dituen erakuslehoia izango da sari honen irabazlea.

Sari honen aukeraketan parte hartzeko bi bide egongo dira:

- **Internet** bidez, Oñatiko udalaren webgunean ([www.onati.eus](http://www.onati.eus)) edo ondoko QR kodea eskaneatuta aurkituko duzuen formularioa betez.
- Ondoko orrialdean dauden **hautaketa-txartelak** bete eta toki haue-takoren batera eramanda: udaletxeko harrera zerbitzura edo Udal Sozioekonomia zerbitzura (Bidebarrieta 12).

Herritar bakoitzeko bozka bakarra onartuko da eta hautaketan parte hartzeko epea **abenduaren 19ko eguerdiko 14:00etan** itxiko da. Bozketan parte hartzen duten herritarren artean 200€-ko saria zozkatuko da. Sari banaketa ekitaldia abenduaren 22an egingo da udaletxeko osoko bilkura aretoan, 13:30etan.



Eskaneatu  
QR kodea  
Herritarren  
Sarirako  
bozka emateko

**Gabonetan  
kaleak  
musikaz  
girotuko  
ditu udalak**

TXANDA elkarteak egindako eska-ria aintzat hartuz, udalak bozgorailuak ipiniko ditu aurtengo Gabonetan erdigu-neko kaleak giro-tzeko. Guztira 25 bozgorailu jarriko dira honako kale hauetan: Kale Zaharra (21 zenbakiraino), Kale Barria, Lazarraga kalea, Ramon Irizarretik Errementari plazaraino, eta Portu kalea Bakardadeko Ama kaleraino.

Arrasateko Danatek S.L. enpresa arduratuko da materiala hornitu eta instalazioa egiteaz 5.250€-ren truke. Udalak eta Txandak ordainduko dute erdibana.

**Herritarren Sarirako bozketan parte hartzen duten guztien artean 200€-ko saria zozketatuko da. Abenduaren 19a da bozkek emateko azken eguna.**

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



## OÑATIKO XI. ERKUSLEIHO LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

Nire BOTOA erakusleiho honi ematen diot:

**IZEN KOMERTZIALA:** \_\_\_\_\_

**NIRE IZEN-ABIZENAK:** \_\_\_\_\_

**TELEFONOA:** \_\_\_\_\_

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 19a baino lehen honako leku hauetako batera: Udaletxea (harrera bulegoa) edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOKKETA:** Botoa ematen duten herritarren artean  
**200 EUROKO SARIA** zozketatuko da

.....  
Sinadura



## OÑATIKO XI. ERKUSLEIHO LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

Nire BOTOA erakusleiho honi ematen diot:

**IZEN KOMERTZIALA:** \_\_\_\_\_

**NIRE IZEN-ABIZENAK:** \_\_\_\_\_

**TELEFONOA:** \_\_\_\_\_

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 19a baino lehen honako leku hauetako batera: Udaletxea (harrera bulegoa) edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOKKETA:** Botoa ematen duten herritarren artean  
**200 EUROKO SARIA** zozketatuko da

.....  
Sinadura



## OÑATIKO XI. ERKUSLEIHO LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

Nire BOTOA erakusleiho honi ematen diot:

**IZEN KOMERTZIALA:** \_\_\_\_\_


**NIRE IZEN-ABIZENAK:** \_\_\_\_\_

**TELEFONOA:** \_\_\_\_\_

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 19a baino lehen honako leku hauetako batera: Udaletxea (harrera bulegoa) edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOKKETA:** Botoa ematen duten herritarren artean  
**200 EUROKO SARIA** zozketatuko da

.....  
Sinadura



# Berdura PLAZIA

larunbatero (8:00-14:00)

## HILE HONETAKO PRODUKTU AIPAGARRIAK

**ONDDOAK**

Onddo ederrak ikusi genituen joan den asteko azokan. Sorian batutakoak ziren.

**29€** KILOA

**GAZTAINAK**

Gaztainak ere ez dira falta garai honetan. Leondik ekarritakoak ziren, uretan esterilizatuak.

**4,9€** 5 KILO

*Zenbat eta hurragokoa orduan eta gozoagoa*

**FELIX AZKARGORTA****GURE EKOIZLEAK**

Oñatiko berdura plazako beteranoenetako bat da Idigoras Garaiko Felix Azkargorta. Abuztu erdi aldera hasi eta udaberrira arte (salgaiak amaitu arte) joaten da azokara, larunbatero. Frutak, fruitu lehorrak eta gazta saltzen ditu. Den-dena etxekoa.

Aurtengoa ez omen da urte oparoa izan. Urrak agortu zaizkio, dagoeneko, eta intxaurrek ere laster.

Frutatan, sagar aukera zabala izaten du Felixek, argazkian ikus daitekeen moduan; baita kiwi eta mizpirak ere. Azken hauek ere bukatu zaizkio. Gutxi izaten ditu, eta jendea zain egoten omen da garai honetan.

Gure artean gero eta ezagunagoa den kakia ere badu salgai. Tomatearen antza duen udazkeneko fruta gozua da kakia.

Frutaz gain, etxeko ardien esnearekin egindako gazta ere saltzen du Felixek. Ia azalik ez duen gazta da, ketu gabea. Urtean 150 bat gazta egiten dituzte Idigoras Garaikuan.

Azkenaldian jende gehitxoago omen dabil azokan, Felixek esan digunez. "Iragoko asteetan ekarritako guztia saldu dut, eta halakoetan konforme. Baina ez da beti horrela izaten; batzuetan jeneroa bueltan eraman behar izaten da, eta joan-etorrian hondatu egiten da, batez ere sagarrak" esan digu Felixek. Hala ere gustura etortzen da larunbatero azokara.



*"Fruitu lehorrak, frutak eta gazta saltzen ditu Felixek. Dena etxekoa"*

Abenduaren 8a jai eguna denez, egun bat aurreratu eta hilaren 7an egingo da asteburu honetako azoka



## GABONETAKO 3 SASKI EDER OPARI AZOKAN

Azokako bezeroen artean Gabonetako hiru otar eder zozketatuko da, bertako ekoi-zeleen produktu sorta banarekin. Abenduaren 1, 7, 15 eta 22ko azoketan bezeroek txartel batzuk egongo dira saltoki bakoitzean, bezeroen datuak ipini eta kutxan sartzeko. Abenduaren 29an (12:00) egingo da sari banaketa. Gainera, ekitaldia girtzeko, herriko musika talde batek joko du zuzenean.

### EROSKETA-ORGEN ZOKKETA

Bost erosketa orga edo karro zozketatuko dira azokako bezeroen artean, urtarrila eta maiatza artean. Hilean bat. Gabonetako saskiaren zozketan bezala, hilero txarteltxoak betetzen duten bezeroen artean egingo da zozketa.

## Herriko artisauen azoka egingo da abenduaren 16an



Azken urteetako ohiturari eutsiz, herriko artisauen azoka-erakustaldia egingo da hilaren 16an, Foruen plazan (10:30-14:30). Herriko 17 artisauen lanak ikusi eta erosteko aukera egongo da bertan: eztia, ile apaingarriak, telazko poltsak, kosmetika eta xaboi naturalak, egurrezko taillak, paperezko fundak, egurrezko jostailuak, bizikleten erruberekin egindako osagarriak... Jatekorik ere ez da faltako (ogia eta gutizia ekologikoak). Aukera ederra, beraz, Gabonetako oparitxoak erosteko.

## Sahararentzako eskola materiala batzeko kanpaina

Sahararren *Tindouf*-eko (Algeria) errefuxiatu kanpalekuetara bidaltzeko eskola materiala batzeko kanpaina jarri du abian Hermansoloña GKEak. Abenduaren 15a bitartean, koadernoak, karpetak, motxilak, boligrafoak, arkatzak... batu nahi dituzte. Herriko paper eta liburu dendetan egingo da bilketa, eta baita ikastetxeetan ere. Diru ekarpenak ere jasoko dituzte, garraio gastuei aurre egiteko.



**ELKARTASUN AFARIA.** Abenduaren 14an egingo da urteko azken afari solidarioa, Parrokiko Misio Taldeak antolatuta. Ohi bezala, Bidaurretako fraideen jantokian egingo da, 20:00etan. Bertan batzen den dirua, Saint Paul ikastetxeko (Mali) haurren elikadura bermatzea helburu duen proiektura bideratuko da.

## Laguntza produktuen doako mailegu zerbitzua



Mugitzeko arazoak dituzten pertsonen doako mailegu zerbitzu bidez laguntza produktuak (gurpildun aulkiak, makuluak, taka-takak...) uzteko zerbitzua martxan jarri du Debagoieneko Gurutze Gorriak. Aldi berean etxeetan zokoratuta dauden era honetako tresnak ere jasoko ditu, zerbitzua osatzeko. Harremanetarako: 943 76 55 76 / [altodeba@cruzroja.es](mailto:altodeba@cruzroja.es)  
**JOSTAILU KANPAINA** Gabonei begira, baliabide gutxi dituzten haurren ametsak egi bihurtzeko asmoz, jostailu berriak biltzeko ekimena jarri du abian Gurutze Gorriak. Hilaren 7, 14 eta 15ean Arrasateko Eroskin batuko dituzte. 'Jostailu txekeak ere salduko dituzte (5€, 10€, 20€ edo 50€koak) jostailuak erosteko. Laboral Kutxan ere egin daitezke diru ekarpenak, 'JOSTAILU HEZITZAILEA' kontzeptua erabiliz.

## Elkartasun azoka, Hotz-Oñatiren alde

Mondragon Unibertsitateko Gestio Eskolak antolatuta, azoka solidarioa egingo da abenduaren 20an herriko plazan (16:30-21:00). Jan-edana (pintxoak, krepe gozoak, edariak), telazko poltsak eta kamisetak egongo dira aukeran. Irabazi guztiak Hotz-Oñatirentzat izango dira.

Bezeroen beharrei  
erantzuteko prest!



**GUALBI**  
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6

Tlf.: 943 78 16 48

email: [onati@gualbiasores.com](mailto:onati@gualbiasores.com)

[www.gualbiasores.com](http://www.gualbiasores.com)



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerra izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.:943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Hau ere esan beharra dago

Xabier Ugarte

Jende asko ibiltzen da (gara) pasiuari, horretarako ditugu bidegorriak eta baso aldera edota baserrietara jotzen duten zenbait pista ere. Aurreko egun batean neuk neure begiz ikusitakoa kontatu gura dut hemen, ez da-ta hain ohikoa, ez da egunero ikusten den gauza, nahiz eta batek baino gehiagok baietz usteko du, badirela eta askotan egiten dutela.

Banindoan San Lorentzotik Errekalde aldera, Garaineko tuneletik. Bide horietan egunero gabiltzanok badakigu zela dauden bideak, txakurkakaz beteak, pista ezkinetan nahiz pista erdian.

Ba horrela, bide erdian, andra bat ikusi nuen geldik, alboan txakurra zuela, geldik baita ere, eta hanka parean txakur-kakamokordo eder bat. Andrak eskua poltsikoan sartuta zuen eta arakutzen bezela zebilen. Berehala atera zuen plastikozko poltsa bat, sartu eskuan eskularra bat balitz moduan, eta mokordoa jaso eta plastikozkoan sartu zuen, hain zuzen bere ondotik pasatzen ari nintzen momentuan. "Oso ondo!!" esan nion, "hori ez dute askok egiten eta ez da egunero ikusten". Irriparre egin eta aurrera, bakoitza bere zereginetara.

Ba horixe bera, bere txakurrak egindako mokordoa jaso zuen. Baina gutxi batzuk egiten badute ere, askok ez diote kasurik ere egiten, eta txakurrak bere beharrak nonnahi asetzen ditu, horrela daude gure bideak, zelaiak, pista eta abar.

Baina egia esan, nik uste dut hau esan beharrik ere ez litzatekeela egon behar, hain begibistakoa da txakurraren ugazabaren zeregina dela!

## Bizikidetza

Idoia Bollar, (Oñatiko Natur Zaliak eta Natur Eskola)

Gure gizartearen eta herriaren ongizatea. Biztanle eta kolektiboen ezaugarri eta berezitasunak kontutan hartu, ezagutu eta hobetze aldera lan egitea. Elkarrenganako begirunea, errespetua eta solidaritatea; norbanakoaren izateari apur bat uko egin eta parean duguna kontutan hartzea. Azkeneko hau da, hain justu, bizikidetzarako eman beharreko lehen pausua: ondoan duguna identifikatzea.

Bizikidetzaren inguruan gabiltzanean pertsonen arteko elkar bizitza etortzen zaigu burura. Geure ongizatea, soilik gure artekoen errespetuzko harremanetan oinarritzen delakoan. Ahaztu egiten ditugu inguratzen gaituzten izakiak, edo behar bada, ez ditugu identifikatzen bizikidetzat. Herrian, erdigunean zein auzotan, kale, parke, horma eta eraikinetako biztanleak: harritz, gorosti, txolarre, urubi, enara, muxar, saguzar, txantxiku, sugandila, arabazezen... zerrenda luzeegia idatzi honetarako. Bakoitza bere bizi beharrekin, bere beharrezko iluntasun, argitasun, egonleku, gordeleku eta kumalekuekin.

Ez ditugunez identifikatzen herritar lez, ezin begirunerik izan hauen beharrei, ezin solidaritate apur bat eskaini; ezin geure gogoei apur bat uko egin eta ondoan ditugun bizilagun hauekin bizikidetza sano bat eraiki. Ez nahi ez dugulako, seguru! Ezjakintasunagatik, egunerokotasunaren inertziak halako gauzetan pentsatzera bultzatzen ez gaituelako, edo auskalo zergatik, ez gara ohartzeko aipatutakoez.

Adibide garbia da partaidetzazko aurrekontuen bozkatze fasean proposat-

zen den 11. puntua: "San Martingo hariztian egun dagoen bidezidorra legarrez berregitea eta argiztatzea, korrika egiteko erosoagoa bihurtuz". Behar bada proposamena luzatu duenak ez daki San Martingo hariztiak gordetzen duen biodibertsitatea zein garrantzitsua den, eta proposamena ez dela batere aproposa ahazturiko herritarren bizikidetzarako.

Bertako haritz mardulek babesean hartzen dituzte saguzar, muxar eta urubiak, esaterako. Gautarrak, egunaren berezko zikloak ematen dituen iluntasun eta lasaitasun orduen beharra dutenak biziraupenerako. Zeinek nahiko luke hauek arriskuan jartzea? Nork ez du nahi iluntzetan San Martinen isil ililik egonda muxarren berbaroak ala urubien uluak entzutea? Nork ez herriko biodibertsitatea babestea? Izan ere hauen ongizateak bermatzen du geurea. Ohar gaitezen gu ez ginatetekeela izango beraiek ez balira. Elkarrekin osatzen dugula herria.

## Euskal armak eta etorkinak

Aimar Urbesalgo


Abenduraren 15ean euskal industria militarren inguruko autoformakuntza egingo dugu gaztetxean. Euskal Herrian 100 enpresa inguru daude arma ekoinpenezkin lotura zuzena dutenak. Gerra hegazkin, helikoptero, tanke, misil edo ibilgailu blindatuentzako osagaiak egiten dituzte, beti arlo militarra eta zibila uztartuz.

Industria honen bideragarritasuna administrazioaren esku dago, eta Karmelo Sainz de la Mazak argi utzi zuen orain hogeit bat urte Ardanza lehendakariaren bozeramaile zenean:





## Unibertsitatea kandelen argitara

 Aurten ere  
'Kandelen Gaua'  
egingo da Sancti Spiritus  
unbiertsitatean, turismo  
bulegoak antolatuta,  
hilaren 21ean,  
18:00etatik 20:00etara.  
Iaz egin zen aurreneko  
aldiz, eta irudi ederrak  
utzi zizkigun, Iñaki  
Idigorasen argazkian  
ikus daitekeen moduan.



IÑAKI IDIGORAS

“Jaurlaritzak bere lehiakortasuna bermatzeko ez dizkio armagintza sektoreari diru laguntzak ukatuko. Gerraren industriak onurak ekartzen ditu Euskadiko familia askorentzat”. Iñigo Urkulluk ere piropeatu izan ditu enpresok, 2014ean gure arma ekoizle handienetakoa den ITPri zuzendutako diskurtsoan “Euskadiko motor turbopropultsoarea zarete” esan zuenean, adibidez. Horra hor biolentzia kondenatzen dutenen biolentzia, beti ere enplegua eta garapen zientifiko-teknikoaren izenean.

Espainia 7. posizioan dago arma salmentaren munduko rankingean, eta Espainia barruan EAE hirugarren posizioan, Madril eta Andaluziaren atzetik. Gure aberriaren paradoxa, terrorismo lokala gaitzetsi eta bakearen beharra azpimarratuz, armak kanpora esportatzen dituen bitartean. EHU eta MU ere hor tartean dabilta, arma enpresa handienekin (SENER adibidez) ikerketa proiektuak garatzen. PNV eta PSEko politikariren bat ere ibili izan dira azken enpresa horren kontseilari. Bitartean etorkinak bada-

toz guregana, gerratik edo miseriatik ihesi, eta Oñatin errefuxiatuentzat aterpetxea ireki dutenean hasi dira biztanleak asaldatzen: “horreik hartzeia ondo dau baña guri lana kentzera ez daittezela etorri”. Lehenengo beste herrialdeak ekonomikoki zein militarki zapaldu, eta orain arazoa besteena izango balitz bezala dabilta oñatiar *akomodatuak*. Ez gaitzala behintzat etorkizuneko Euskal Estatuko gobernu ultraeskuindarrak ezustean harrapatu. Hasi da ernatzen.

## Presoak kalera, amnistia osoa!

Ander Lizarralde eta Iñaki Urizar Markuleta

Joseba Arregi, Xabier Ugarte eta Xabin Usandizaga oñatiarrak bahituta dauzka espainiar estatuak, baldintzarik krudelenetan, gupidarik gabe, egunez egun urterik urte. Bestalde, Alberto Plazaola eta Asier Guridi herriki-deak deserriari dira, Oñatitik urrun, ezin itzulita.

Kartzeletako mendeku politika kriminala ERRE-

PRESIOAREN adar bat da. Jaioterritik ehundaka kilometrora daude presoak, ia egun guztia ziegan egotera kondenatuta (lehen gradua); isolamenduaren (bakartze zigorra) mehatxua; kristala tartean delarik, 40 minutuko bisitak astean behin; tratu txarrak, jipoiak, erregistroak, hogeitaka urtetako kondenak. Zigorrik jasotzen ez duen INDARKERIA instituzionalizatu!

Horrez gain, ERREPRESIOAK beste adar batzuk izan ditu Euskal Herrian; gerra zikina, eraildako eta-kideak, jarraipen polizialak, gaztediaren jazarpena, politikaren kriminalizazioa; manifestazioetan polizien eta ertzainen oldarraldi basatiak, zauritu asko utzi dituztenak...

Eta TORTURA, guztien artean TRESNA ERREPRESIBORIK doilorrrena. 5.000 euskal herritar baino gehiago torturatu dituzte (300 baino gehiago ertzaintzak). Bañeraren metodoa, elektrodoena, poltsarena, pistolarekin mehatxuak, golpe izugarriak, umillazioak... lazgarriak dira testigantzak! MAKINERIA ERREPRES-

SIBO hori guztia zigorgabetasunean dago, inpunitate osoz. Ez da inor auziperatu, ez dago kondenaturik. Ematen du ez dagoela arduradunik eta erantzulerik.

Espainiak, Frantziak eta eskuin abertzaleak (PNVK) gauzatu duten ERREPRESIOAK zigorrik gabe dirau.

Torturazailak, arduradun politikoak, barne ministroak, barne sailburuak, unean uneko lehendakariak, Estatu-buruak, ertzainburuak, polizia nazionala, guardia zibila... inor ez da inongo juezen aurretik pasatu. Ez Jose Antonio Ardanza, ez Juan Maria Atutxa, ez inor.

Ez dago besterik... haiek juezen aurrera joaten hasi daitezela edo bestela askatu ditzatela preso guztiak berehala.

Gerturaztea ez da nahikoa, gaixo larriak etxeratzea ez da nahikoa; edo haiek zigortzen hasten dira, edo bestela...

...Amnistia osoa orain!

(Gutun gehiago hurrengo orrialdean)

**Eskerrik asko****Arantzazu****Arantxa Kortabarria**

**DOLUA:** galeraren aurrean dauden erantzunak dira, bereziki pertsona bat hil edo galtzean. Hauxe dugu wikipedian aurkitzen dugun definizioa.

Norberak gorputzean sentitzen duena berriz, tristura, lur-jotze, nostalgia, beldurra, amorrua, bakardadea... Hori da nik orain dela bi hilabete nere bikotea galdu nuenean sentitu nuena. Dolua omen da ariman daukagun zauri zakon eta minkor hori sendatzeko jarraitu behar dugun bidea.

Laguntza bila hasi, eta **BIDEGIN** doluan lagun elkarteak aurkitu nuen. Beste hainbat zerbitzuren artean dolu laguntza eskeintzen duen elkarteak. Eta a ze sorpresa! Arantzazun Asis Topaguneak "Por el camino al duelo" tailerra antolatzen zuela jakin nuenean...

Oñatin, Arantzazun, herrian bertan, dolu, trauma eta galeretan aditua den Izaskun Andonegi terapeutak bideratuta, horrelako laguntza eskaintzea izugarria iruditu zitzaidan.

Mila esker Arantzazu, gure bizitzan zehar noiz-bait beharrezkoa dugun laguntza hori eskaini eta zabaltzeagatik.

Eskerrik asko Izaskun, gu entzun, sentitzen duguna adierazten lagundu, bide luze eta zail honetan, egunero behar ditugun baliabideak eskeini, eta gure

iluntasunean, noraezean eta bakardadean argi izpi bat dagoela erakusteagatik!

**Urtea bukatu baino lehen****Aitor Arregi (Moriarti)**

Urtea amaitzean dagoen honetan, zor bat kitatzera nator.

*Handia* filmak sortutako oihartzunaren ondoren, hurrengo asteetan herrikide asko gerturatu zitzaizkidan zoriontzera. Hau ikusita, nik ere, nolabait, nire

esker ona bueltan adierazi nahi nuen baina ia arnasa hartzeko denbora gabe, berehala sartu behar izan ginen beste filmaketa batean eta urtearen zati bat kanpoan egon ginen. Konturatu orduko esker ona bueltatzeko garaia pasatu egin zitzaidan.

Beti esan ohi da, "hobeto berandu, inoiz baino". Beraz, jokoz kanpo eta trakets sentitzearen lotsa alde batera utziko dut oraingoan, honako hau esateko:

Eskerrik asko benetan oñatiarroi erakutsitako

gertutasunagatik. Eskerrik asko baita udaletxeari Santa Antzokian antolatuta zenidaten omenaldiagatik eta momentuoro azaldutako prestutasun eta gertutasunagatik. *Handiako* taldekideok askotan komentatu izan dugu gure artean, sarien ondorioz sortu zen poz orokorrak harritu egin gintuela. Nire kasuan, poz hori batez ere gertukoekin eta baita herrikideekin bizi izan nuen. Nire herrian.

**GURE SEME-ALABEN SEGURTASUNAGATI!****Mirian Urzelai (Arduratutako guraso eta herritar gisa)**

Moiua kalean aste honetan jasandakoa gehiegizkoa izan da! Zebrabidea pasatzen ari nintzela, jada erdian nengoela, ia auto batek harrapatu nau, eskerrak erreflexuei, iskinera egin dut jauzi! Autoa zebrabide erdi-erdian! Alaba atzean ikararuta! Izugarritzko sustoa, ni ezin sinetsi, bihotz taupadak topera! Eta gainera gidari lotsagabe baten irainak jaso behar, 20km/orduko zonaldean, askoz abiadura handiagoan zihoran eta frenatzeko denborarik eman ez dion auto batekin, ea ez dudana bera ikusi! Barkamena eskatu ere ez? Pentsatu nuen, harrapo izan banindu, irainak irentsi eta kartzelan ustelduko litzake, ze pena! Baina aurrera, tipoari esan beharrekoak esanda noski, eta urduri oraindik!



Apurtxo bat aurrerago, autoa espaloierdi-erdian aparkatuta! Bidea guztiz moztzen, eta musika eskolara doazen haur guztiak autoen bidetik pasatzen, aldi berean autoak gora, eta autoak beheara, etengabe... haurrak ere bide erditik... Ai! Beste espaloitik pasako dugu! Ba ez! Ezin da ezta ere! Hortxe ere, marra horiaren gainean eta espaloia hartuta, auto-ilara bikaina gaizki aparkatuta, baina barkatuta...!

EZ, EZ!! Ez da hor bukatzen... Arazoa erdi-konpontzen duten espaloian ezarritako poste zuri-gorriak lurtean autoek emandako kolpeekin lekutik aterata! Aspertuta ziharo egon behar da jada, poste zuri-gorri horiek etengabe bere lekuan jartzen diharduen langilea! Hileroko lana!

**OINEZKOEN ESPAZIOA EZ DA ERRESPETATZEN ETA AUTOEN HERRI BARRUKO ABIADURA ORAINDIK GUTXIAGO!** 20Km/ orduko zonaldeetan zebrabidea baino lehen, abiadura gutxiarazten duten badenak jarri behar baditugu, jar ditzagun! Zer edo zer, **PROFESIONAL BATEK ONGI PENSATUTAKO KONPONBIDEA MESEDEZ!** Gidariak, gurasoak,... Seme-alaben autonomia bultzatu nahi dugu, herri barruan oinez, bizikletaz,... mugitzera animatu, baina nola egingo dugu hori oinezkoen segurtasuna hain kolokan egonik...?



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50

## Stultitia eta Eliza



Espainiako Gotzainen Batzarreko Idazkari Nagusia eta bozeramalea den **Javier Argüello**: apaizek "gizonezko oso izan behar dute, hortaz, heterosexualak".

**Eliza**, latinetik "ecclesia", eta honek grekotik "ekklesia", antzinako Grezian **herritarren batzarra** adierazteko erabiltzen zen hitza, eta dirudienez Tarso Paulok **Nazarateko Josuren jarraitzaileen batzarra** adierazteko hartu zuena. Ez da beraz funtsean eraikin bat, ez eta erakunde baten egungo egitura edo antolakuntzan teoriarik komunitatearen zerbitzu-eginkizunetan (=ministerio) jardun beharko luketen aginte-kargue-



**Juan Carlos Olaeta**

tan daudenak, gotzainak kasu. Vatikanoko II. Kontzilioko (1962-1965) testuetan jasota gelditu zen bezala, Eliza **Nazarateko Josuren jarraitzaileen batzarra** osatzen dugu, komunitatea gara Eliza, neu ere Eliza naiz; eta zer esan, zer egin behar dut nik gotzain horrek (eta beste batzuk) esan ohi dituzten ergelkeria higuigarrien aurrean? Gaurkoan gutxienez leiu honetan hauxe idatzi. **Ez nau eta ez ditu ordezkatzeko**, errepresentatzen ezagutzen ditudan herrietako **eliz-komunitate apalak**, ondotoxo dakit. Baina gehiago esan nahi dut, azpimarratu nahi dut: **ez du errepresentatzen Nazareteko Josuren espiritua, jarrera, mezua eta are gutxiago bizitza** beste pertsonetik, areago bera bezalako batzuen erruz, erlijioso ala komunista, berdina zait, sufritu/tzen duten

pertsonetik. Bada garaia gu ere bagaren "batzar"reko kideok ozen esateko, **UTIKAN!** Eta utikan behingoz **gizonkeria** gure komunitateetatik, egituretatik, gurean **Nazarateko Josurekiko fideltasunagatik** (batez) ere, konplize izan nahi ez badugu. Aste honetan Espainiako Gotzainen Batzarrak barkamen publiko eskatu du "abuso sexualengatik" eta haien aurrean askotan edukitako jarreragatik (beste erakunde askok ere egin beharko...); kostata, bego!, baina bide samurra dugu/genuen ordea gaitz izugarri hori erauzteko: **gizon(eria) gutxiago eta eme gehiago** gure "batzarretako" (elizateko) arduradun, erabakimen guneetan ere, buru, eme-senaz hartuz eta emanez, Josuren antzera ("dejoma"). Utikan bazterkeria eta zuen kondena madarikatuak!!

## Hizkuntza batek ez du irauten dakitenek hitz egiten dutelako soilik, ez dakigunok ikasten dugulako baita

✍ Carol Palacio

Euskal Herrira etorri nintzenean, askotan sentitzen nintzen baztertua. Ni Valentziakoa naiz eta bertan ekintza askotan parte hartzeko ohitura neukan. Hemen, ordea, hizkuntzagatik zailtasun asko aurkitu nuen eta, denborarekin, euskaldunen errua zela pentsatzen nuelako amorratzen hasi nintzen. Orain ikusten dudanez, nire planteamendua ez zen egokia: kexatu ahal gara, noski, baina bakoitzak bere erantzukizunak hartu behar ditu egoera hobetzeko.

Hizkuntza bat ikasteko prozesua, denok dakigunez, ez da erraza. Gainera, bakoitzaren egoeraren arabera, motzagoa edo luzeagoa izan daiteke. Hala ere, denok gaztelera jakiteak ez luke prozesu hori luzatu beharko. Hizkuntza berri bat hitz egiteko une txarrak igarotzea ezinbestekoa da, bai hemen, bai Txinan, eta une horiek atzeratzeak ez dauka zentzurik.

"Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik" zioen Joxan Artzek. Egia den arren, nik ezin dut jarrera pasiboan uzten nauen premisa bat onartu. Ez dakigunok euskara ikasteak ere hizkuntza ez galtzen laguntzen du, edo hori pentsatzea nahiago dut. Niretzat País Valencià ez ezik, Euskal Herria ere nire herria da. Hemen bizi garen etorkinon herria da. Garbi dago, guk ere asko daukagula esateko. Esan beharrekoa bi hizkuntzetan esateko aukera eduki arren, gure ardura da euskaraz esaten saiatzea.

## GUZTIONA GUZTION ARTEAN

Urgain Eskolak, Oñatiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundurik, Errekalde Eskolako sotoan gauzatu diren berritze lanak bertatik bertara ezagutzeko gonbidapena luzatzen die herritarrei.

**ABENDUAK 20, OSTEGUNA**  
**17:00-19:00**

Sotoa ikusgai egongo da (luntxa egongo da)

### GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



652 70 45 47

Oñati

PINTURAS  
**URBIA**  
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Gure ekintzen berri emango duen atala...

## GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO DIRU LAGUNTZEN DATUAK 2018

Aurten ere, Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak, gure herriko gazteen emantzipazioa lortzeari zuzendutako diru laguntza lerroa martxan izan du. Laguntza hauen xedea da: Oñatiko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 18 eta 30 urte bitarteko gazteei, etxebizitzaren alokairu-gastuen zati bat ordaintzea.

Horrekin, alde batetik, Oñatiko Udalak herriko gazteen emantzipazioan laguntzea du helburu. Baina beste alde batetik, alokairuko etxebizitzaren erabilzaila nagusi diren neurrian, gazteek pairatzen duten alokairu-prezioetan ere eragin nahi du, egun existitzen diren alokairu altu horiek jaisteko helburuarekin.

Helburu horiek kontuan hartuta, laugarren urtez, emantzipaziorako diru-laguntzak eman ditu Oñatiko Udalak. Hori dela eta, urte bukaera honetan momentu egokia da diru-laguntzen eta bilakaeraren balorazioa egiteko.

Aipatzekoa da aurten ere eskaera kopurua igo egin dela, aurreko urteetan bezala. 2015ean 22 eskaera izan ziren, 2016an 23, 2017an 29 eskaera, eta aurten 36 eskaera izan ditugu. Datu horri, jakina, banatutako diru kopuruarena gehitu behar zaio: 2015ean, 16.351€ banatu ziren; aurten, berriz, 51.200,00 € banatu dira. Gauzak horrela, argi dago eskaeren kopurua nabarmen igo dela, eta zer esanik ez Udalak Gazteen emantzipazioari bideratutako diru kopuruaren inguruan, hau hirukoiztu baino gehiago egin baita.

Argi dago, inolako zalantza izpirik gabe, Oñatiko gazteen artean diru laguntza honek izan duen eragina nabarmena dela. Gazteak emantzipaziora animatzen ari dira, argi eta garbi, eta gainera gero eta baldintza hobean ( Aurten eskaeren %94a bakarrik edo beste batekin bizitzeko lortu dute alokairua, eta horrek egonkortasun maila bat lortu dela adierazten digulakoan gaude).

Horrekin batera, bada beste datu aipagarri bat, aurten ere nesken eskaera-kopuruak gora egin du, aurreko urte guztietan bezala, nahiz eta nesken kolektiboan emantzipazio gehienak bikotearekin bizitzeko badira ere. Hala ere, neska gazteen kolektiboan positiboki eragiten ari garelakoan gaude, zalantza barik.

Eskatzaileen perfilaren inguruan, adina da nabarmentzeko beste datu bat, eskatzaileen %88ak 25 urte edo gehiago duela. Eta datu hori logikoa bada ere, adin horren aurretik estabilitatea lortzeko zailtasunak daudela ere adierazten digu.

Gauzak horrela, laburbilduz, aurten ere Oñatiko Udalaren izenean egiten dugun irakurketa oso positiboa da. Izan ere, gazteengandik jasotako eskaera bat asetzen ari gara, eta Udalak etxebizitza arloan kompetentzia zuzenik ez badu ere, gure gazteen ongizatean zuzen eragiten ari garelakoan uste dugulako.



**Ion Lopez Santamaria**  
Haur eta Gazteria Teknikaria

**ABENDUKO AGENDA:** 2018/12/5 Kontzertua: Lenao + Talde gonbidatuak gaztelekuan (22:30). Sarrera 8€. | 2018/12/9 Go!azen antzerkia gaztelekuan (16:30 eta 18:30etan). Sarrera 3€. | 2018/12/4 - 2018/12/11 - 2018/12/13 Jostailu truke azoka Txaloka Udal Ludotekan. Jostailuak eramateko (16:45 eta 18:45). 2018/12/15 Jostailu Truke merkatua Txaloka Udal Ludotekan (11:00-13:00). 2018/12/26-27-28 Gabonetako ekintza bereziak ludotekan.

# eskukada bat ahots

## Egin dezagun kultura elkarrekin



Oñatiko Ganbara Abesbatzako taldea osatzen dugunok oso harro gaude hainbat eta hainbat jarraitzaile zintzo eta leial izateagatik. Horien guztien laguntzari esker Oñatiko Ganbara Abesbatzako taldeak estatuko zein nazioarteko eszenategietan abesteko aukera izan du.

Lorpen horiek eta munduan zehar OÑATIren eta Euskal Herriaren izen ona zabaltzeak ematen duen poztasuna gure LAGUNEi esker bideratu ahal izan dira. Gure arrakasta hori guztion arrakasta da.

Oñatiko Ganbara Abesbatzako taldeak egitasmo berriei ekingo die laster eta erronka horiei behar bezala erantzuteko LAGUN izateko beste modu bat eskainu nahi dizuegu. Horretarako nahikoa izango da orri honekin batera doakizun inprimakia betetzea eta guri bidaltzea.

### GANBARAREN LAGUN # / GANBARAKO BAZKIDE +

# Abesbatzek urtero egingo duten bazkideentzako kontzerturako sarrera bat jasoko duzu dohainik.

+ Abesbatzek urtero egingo duten bazkideentzako kontzerturako bi sarrera jasoko duzu dohainik.

# + Hiru hilean behin, abesbatzei buruzko informazio puntuala eta agenda jasoko dituzu e-postaz.

+ Abesbatzen edozein talde ezkontza/ekitaldi pribatu baterako kontratatzean %20ko beherapena izango duzu.

+ Abesbatzek urtero gabonetan antolatzen duen saskiaren zozketan partizipazioa izango duzu.

# + Urte amaieran, abesbatzen urteko ekintza desberdinak biltzen dituen aldizkaria jasoko duzu.



**Izena** Nombre

**Abizenak** Apellidos

**Helbidea** Dirección

**Posta kodea** Código postal

**Herria** Población

**Telefonia** Teléfono

**E-posta** E-mail

**NAN** DNI

**Bankuaren kontu zenbakia**

Número de cuenta (20 digitos)

**Urteko ekarpen hau egingo dut**

Mi aportación anual

Ganbararen lagun 15€/urtean

Ganbarako bazkide 50€/urtean

Kopuru handiago bat: \_\_\_\_\_

**Baldintzak onartzen ditut**

Acepto las condiciones



\* Datuak bete eta orria Txokolateixara eraman dezakezu. Mila esker!

Gipuzkoako txapeldun, garaipena Urduñan, bigarren Berrizen, bosgarren Laudion (Espainiako Kopa)... Denboraldi hasiera bikaina egiten ari zara. Etxeko lasterketa irabaztea izango da orain helburua.

Bai, oso polita izango zen etxean irabaztea, eta gogotik saiatuko naiz, baina garaipena lortzea ez da sekula samurra izaten.

**Aurreneko aldiz ariko zara Oñatiko proban, Urrutxuko zirkuituan. Gustatzen al zaizu?**

Ondo dago bai; eskailera tarte luzea eta gogorra dauka, eta horrek desberdindu egiten du beste zirkuituetatik. Gainera, lokatza baldin badago, oso astuna eta oso gogorra egiten da ibilbidea, eta indar handia behar izaten da. Niri ibilbide gogorak gustatzen zaizkit. Ikusiko dugu zela ateratzen den.

**Txirrindulari askok atsedeen hartzeko baliatzen dute garai hau. Zu, aldiz, ziklo-krosean ere aritzen zara. Zergatik?**

Asko gustatzen zaidalako, eta Oñatin ziklo-kros taldea egonik, aukera oso polita da guretzat. Errepideko denboraldira begira ere ondo etortzen da, sasoiko iristen gare-lako, eta, gainera, ziklo-krosa oso lagungarria da bizikletako teknika landu eta indarra hartzeko.

**Zu, gainera, bete-betean lehiatzera ateratzen zara ziklo-kros probetan ere.**



Javier Linares

AIMAR EROSTARBE

**“Polita izango zen Oñatin irabaztea”**

**Oñatiko VIII. Ziklo-krosa jokatu da abenduaren 16an Urrutxun. Bertan izango dira Arrikruz-Aloña Mendiko txirrindulariak, tartean Aimar Erostarbe, Gipuzkoako txapelketa irabazi berritan**

Ziklo-krosaz gozatzeko aukera izango dugu abenduaren 16an Urrutxu inguruetan. Goizeko 9:30etan hasita, bost lasterketa jokatu dira (Kadete, Jubenil, Sub-23, Elite eta Master mailakoak). Euskadiko espezialistari onenak izango dira bertan. Tartean, Arrikruz-Aloña Mendi taldeko zazpi mutil, Aimar Erostarbe buru dela. Gipuzkoako txapelketa irabazteaz gain, Urduñako proba ere irabazi zuen Aimarrek, Berrizen bigarren sailkatu zen, eta Laudion, Espainiako Kopako proban, 5. Orain etxean jaso nahi ditu besoak.

**«Espainiako txapelketan top-5 bat lortzea da aurtengo helburua»**

Bai; behin lehiatzen hasi eta nahiko ondo moldatzen naitzela ikusita, serio hartzen dut, bai.

**Zein da aurtengo helburua?**

Espainiako txapelketan Top-5 bat lortzea gustatuko litzaidake. Horretarako, Espainiako Kopako probetan parte hartzen ari naiz, horko sailkapenak aukera ematen duelako Espainiako txapelketako irteera parrillan aurrerago egoteko. Laudion (Espainiako Kopa) 5. sailkatu nintzen, eta hor aurrean ibiltzeko gai naitzela ikusi nuen.

**Entrenamendu espezifiko-rik egiten al duzue?**

Bai, astero egiten dugu saio bat San Martinen. Oso inportantea da teknika lantzea (kurbeoak, bizikleta sorbaldara igotzea, eskailerak eta oztupoak gainditzea...), bestela denbora asko galtzen da.

**Errepidean ere urte bikaina egin duzu. Espainiako txapelketan bigarren, Euskadiko txapelduna, beste hiru karrera irabazita... Pozik, ezta?**

Oso pozik, bai. Ez nuen espero hain ondo ibiltzerik, lehen urteko kadetea izanik. Denboraldi amaierara oso

caravanas



oñate



• GALDARAGINTZA - CALDERERIA  
Otdai zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

[www.caravanasonate.com](http://www.caravanasonate.com)

• BIZIKLETAK  
• ERREMOLKEAK  
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK  
Otdai zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65  
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

indartsu iritsi nintzen eta oso gustura nago, bai.

### Berezko dohainak ala lana; zer dago atzean?

Batez ere lana. Asko entrenatu behar da. Baina niri, zorionez, ez zait gogorra egiten entrenatzera irtetea, asko gustatzen zait eta.

### Zer nolako txirrindularia



### zara?

Gorputzez handi samarra baina ere, aldapan gora ondo defendatzen naiz. Sprinta ona daukat, eta errodadore bezala ere ondo moldatzen naiz.

### Zein dira zure erreferenteak txirrindularitzan?

Van Avermaet asko gustatzen zait, eta baita Peter Sagan ere.

## Oñatiko Kirol Sariak - 2018

Oñatiko Kirol Sariak emango ditu aurten ere udalak, urtean zehar nabarmendu diren kirolarien eta hauen inguruan lan egiten duten teknikarien ea laguntzaileen lana aitortzeko. Abenduaren 21ean egingo da sari banaketa udaletxean (19:00).

**HERRITARREN SARIA.** Udaleko kirol batzordeak emango dituen sariez gain, herritarrek ere izango dute kirolari onena hautatzeko aukera, epaimahaia proposatutako lau kirolarien artean: Eric Martin (Euskadiko txapelduna 5.000 metroko lasterketan), Elene Guridi (Euskadiko 16 urte azpikoen futbol selekzioan egin du debuta eta Realarekin fitxatu du) eta Ainhoa Redin (Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan hainbat domina eta Espainiakoan 14. sailkatu zen). Abenduaren 5etik 19ra bozkatu ahal izango da udalaren webgunean ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)). Parte hartzen duten guztien artean bi lagunentzako afaria zozkatuko da.



Eric Martin



Elene Guridi



Ainhoa Redin

## Xabi Lete Urduñako maratoian garaile

**MENDI LASTERKETAK** Xabi Lete mendi korrikalariak amaiera bikaina eman dio denboraldiari, bi garaipenekin. Azaroaren 11n Urduñako mendi maratoia irabazi zuen, eta urriaren 31n Torlako *Vuelta al Cebollar* 22 kilometroko mendi lasterketan nagusitu zen. Horrenbestez sei garipenekin borobildu du urtea Letek.



## Isastik urte bikaina borobildu du BTTan

**MENDI BIZIKLETA** Argider Isasti bigarren sailkatu zen azaaroaren 24an jokaturako Bilbao Extreme BTT proban. Gainera, Diario de Navarra Open proban ere sailkapen orokorreko 2. postuan amaitu du, Master-40 kategorian. Gogoratu, aurten, La Dolorosa ultramaratoia (205 km / +5.000m.) ere irabazi duela Isastik.



## Aloña Mendiko atletak indartsu krolean

**KROSA** Aloña Mendiko korrikalariak hasiera ona eman diote kros denboraldiari. Irunen jokatu zen denboraldiko aurreneko lasterketa, eta azpimarratzekoak M<sup>a</sup> Sol Ramosek lortutako garaipena Master kategorian, eta Aitor Diaz de Monasteriogurenek lortutako 2. postua 18 urtetik beherakoen mailan. Eric Martinek ere meritu handiko 4. postua lortu zuen sub-23 mailan. Igor Mugartza (6.) Beñat Guridi (8.) eta Nahia Lasagabaster (8.) ere podiumetik hurrean ibili ziren.



## Eskubaloi sailaren bazkide kanpaina

**ESKUBALOIA** Aloña Mendiko Eskubaloi sailarek bazkide kanpaina zabalik dago abenduaren 16ra arte. Senior mailako taldearen partiduetan edo elkartearen bulegoan egin daiteke bazkide. Urteko kuota 15€. Aloñak 13 talde ditu aurten eta 225 jokalarik; 136 neska eta 89 mutil.

## Pilota txapelketa, Hotz-Oñatiren alde

**PILOTA** Mondragon Unibertsitateko Gestio Eskolak antolatuta, abenduaren 15ean jokatu da kiroldegian (9:00). Bikoteko 10€. Saria: bi pertsonentzako afaria. Izena emateko azken eguna: abenduak 10 (631693674 / [Laukideak@gmail.com](mailto:Laukideak@gmail.com)).

## San Silbestrea, urtea sasoiko agurtzeko

**ATLETISMOA** Urtero legez, San Silbestre lasterketa egingo da abenduaren 31n, Atxintxiketan taldeak antolatuta. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da gaztetxoek lasterketa, eta 16:30etan nagusia (7 km), plazan hasi eta bertan bukatu. Izen-ematea (3€) egunean bertan, Gaztelekuan, 16:00ak arte.

## Urteko azken mendi irteera / Abenduak 15

**MENDIA** Aia-Pagoeta-Zumaia izango da Aloña Mendiren urteko mendi irteera. Ondoren bazkaria egingo da Zumaian bertan. Izena emateko azken eguna, abenduak 13.



# Euskal mitologia

Esteban Kerexetaren eskultura bilduma ikusgai dago turismo bulegoan urtarrilaren 13ra arte

**E**uskal mitologiako elementu eta pertsonaia ezberdinak (Ama lurra, Eguzkilorea, Galtzagorriak, Lamia, Basajaun...) interpretatzeko aukera dugu Oñatiko turismo bulegoan, Esteban Kerexetaren eskultura bildumaren bidez. Egurrean landutako hamazazpi artelan daude bertan ikusgai, urtarrilaren 13ra arte, bulego orduetan (asteartetik igandera, 10:00-14:00 eta 16:00-18:00).

Egurrezko eskulturekin batera, *Origami* erara egindako eskultura txikiak ere ipini ditu Kerexetak, paper zati bat eta guraizeak bakarrik erabilita, eskultura edozeinek egin dezakeela erakusteko.

## BELDURRA GALDU

Kerexetak eskerrak eman nahi dizkio turismo bulegoari, bere lana erakusteko aukera emateagatik, eta animatu egin nahi ditu herritarrak bertara hurbiltzera. "Batez ere jende gaztea etortzea gusta-

tuko litzaidake. Eskulturgintza mailan oso motel ikusten dut Oñati, eta apalki bada ere, akuilu lana egin nahi nuke, ea nor-bait animatzen den". Eskulturari beldurra galdu behar diogula dio Kerexetak; "pelikula, margolan edo liburu baten aurrean posizionatzen garen moduan, eskultura lanetara ere beldur barik hurbildu behar dugu, eta gure iritzia eman. Ez du balio 'horretaz ez dut ulertzen' esateak".

Oñatiko herrian eskulturak duen presentzia urriaz ere gogoeta egiten du Kerexetak. "Badakit zaila dela, udalak aktibitate askori erantzun behar dielako eta baliabideak mugatuak direlako, baina eskulturarekiko sentsibilitate gehitxoago ikusi nahi nuke. Ondo legoke, adibidez, tarteka tarteka konkurso publikoak antolatzea aurrekontu mugatu bat ipinita".

## MATERIALA BERRERABILI

Kerexetak berrogei urte luze darama

eskultura lantzen. Euskal gaiak (argizaiolak, hilerriak, euskal kirola...) landu izan ditu gehien bat, baina azkenaldian gai sozialetan dabil murgilduta. "Inmigrazioa, bortxaketak, drogak, ludopatia, langabezia... bezalako gaien inguruko lanketa egiten ari naiz, metala erabiliz, gai gogorrak direlako, hotzak, bortitzak". *Tránsitos* du izenburua bilduma berriak, eta laster ikusi ahal izango dugu emaitza.

Kerexetak argazkigintzatik egin zuen jauzi eskulturgintzara, bolumenaren bila. Euskal eskultore handiak (Oteiza, Txillida...) ditu erreferente, baina autodidakta da eta material ezberdinak (egurra, metala, harria...) berrerabiliz sortzen ditu artelanak. ■



## Anastasio Zubiaren bizimodua liburuan

Herriz herri saltzaile ibili zen Araozko Gerneta Erdiko Anastasio Zubia zenaren bizimodua jaso dute liburuan Jose Antonio Azpiatzuk eta Migel Angel Kortabariak, Artixa taldearen eta udalaren laguntzarekin. Abenduaren 15ean aurkeztuko dute Araozko saloian (12:00).

**CORTABARRIA**  
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

**NI moda**

**MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12  
Tel. Faxe: 943 71 62 40



## ERAKUSKETA

### LUR BUSTIAN IDATZIAK



**IÑAKI 'JALTZO'**ren buztin lanak ikusgai egongo dira kultur etxean, abenduaren 20tik urtarrilaren 11ra

Buztinez landutako hainbat pertsonen bilduma aurkezten digu oraingoan Iñaki Jauregiari Beitiak.

Eragin berezia sortu dioten pertsonak dira. Etxetik abiatuz, eta mundu zabalera hedatuz, **izena** eta **izana** duten pertsona esanguratsuak ikusiko ditugu buztinean margotuak eta arbelezko euskarrian itsatsiak. Musikiariak, bertsolariak, idazleak, olerkariak, eskulturagileak, margolariak.... Ehun kuadro, guztira, euskal kultura eta historia uztartzen dituen erakusketan.

Jaltzok berak aurretik egindako beste lan batzuk ere (apostoluak, dantzariak...) egongo dira ikusgai, asteleheneetik igandera, 18:00etatik 20:00etara.



Santa Ana aretoan izango da kontzertua, 19:00etan. Sarrera doan.

## Lehengo eta oraingo soinujoleak kontzertu berezia eskainiko dute abenduaren 15ean

Oñatin beti egon da eskusoinua jotzeko zaletasun handia, eta horren erakusle izango da abenduaren 15eko kontzertua. Belaunaldi ezberdinetako 45 bat soinujole batuko dira Santa Ana aretoan, Oñatin tradizio handia duen akordeoiaren edertasuna eta polibalentzia erakutsiz, musika mota guztiak egiteko aukera ematen duen tresna baita.

Udaberrian hasi ziren lanean, José de Azpiazu musika eskolako akordeoi irakasleen deialdiari erantzunez. Atzoko eta gaurko soinujoleak batu eta elkarrekin kontzertu eder bat emateko hauen ametsa, eta lortu dute. Aspaldian akordeoia jo gabe zegoen jende asko animatu da; hautsak astindu, instrumentuak afinatu eta haserako beldurrak uxatuta, ilusio bereziz

↓  
**Pelikula ezagunetako soinu bandak joko dituzte. Baxua eta perkusio nahiz haize instrumentuak izango dituzte lagun zenbait abestitan**

ari dira prestatzen abenduko emanaldia. Polita izango da belaunaldi ezberdinetako herritarrak, tartean ama-alabak, agertokia partekatzen ikustea, Arantzazu Bikuñaren zuzendaritzapean.

### KONTZERTU POLITA

Pelikula ezagunetako soinu bandak (*Jurassic Park*, *Mamma mia!*, *Carros de fuego*, *West Side Story*, *La gran evasión*, *Titanic*, *Grease*...) joko dituzte, eta sorpresaren bat ere bai, emanaldia borobiltzeko. Doinu ezagunak dira denak, erraz

entzuteko modukoak. Gainera, musika jotzen duten bitartean pelikuletako irudiak proiektatuko dituzte, saio polita, alai eta arina osatuz. Abesti batzuetan gitarra baxua eta perkusio nahiz haize instrumentuak izango dituzte lagun. ■

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)

Jaione San Miguel Ugarte  
 **MAPFRE**  
OÑATI

**Kontzertua**

Floridako (AEB)  
The Wooly  
Bushmen rock  
taldea.  
19:30, Itturri

**Haur ikuskizuna**

'Kantu kontari'  
3-8 urteko hurrei  
zuzendutako  
ikuskizuna (3,5€)  
17:00, Santa Ana

**MUSIKA****ABENDUAK 9 / 19:30****THE WOOLY BUSHMEN**

Floridako (Estatu Batuak)  
rock taldeak bere azken  
lana ('Arduino') aurkeztuko  
du. *Itturri taberna.*

**ABENDUAK 14 / 22:30****GOSPEL DOINUAK**

*Ariane Nsilulu & Shine Gos-  
pel family (10€). Santa Ana.*

**ABENDUAK 15 / 19:00****AKORDEOI KONTZERTUA**

Musika Eskolako lehengo  
eta oraingo soinu-joleen  
kontzertua. *Santa Ana.*

**ABENDUAK 16 / 19:00****GABONETAKO  
KONTZERTU BEREZIA**

Musika Banda eta Gan-  
bara, Hots, Ganbara Txiki  
eta Oñati abesbatzak eta  
Parrokiko korua. *Parrokia.*

**ABENDUAK 16 / 19:30****IKER PIRIS ORGAN TRIO**

*Blues doinuak izango dira  
nagusi Iker Piris gitarrajole  
eta abeslaria buru duen hi-  
rukotearen eskutik. Itturri.*

**ABENDUAK 21 / 20:30****TOOTH + DOBLE CAPA +  
LEE KORE**

Gernikako *Tooh* postrock  
taldeak eta Madrilgo *Do-*



LARUNBATA

15

LENAO talde oñatiarrak  
'Iparraldeko argiak' disko berria  
aurkeztuko du, *Natural Project* eta  
*DePekuliars* talde lagunekin.

22:00, **Gaztelekua**  
(Sarrera, 8€)

**Kontzertua**

*ble Capa* rock-blues bikote  
instrumentalak beraien  
lan berriak aurkeztuko  
dituzte. Oñatiko *Lee-Kore*  
metal-hardcore taldearen  
lehen kontzertua izango  
da. *Antixena gaztetxea.*

**ABENDUAK 22 / 19:00****OÑATI ABESBATZA**

Gabonetako kontzertua.  
*Agustinoen eliza.*

**ABENDUAK 26 / 19:30****JOHN DEALER € THE  
COCONUTS**

Legazpiko punk-rock taldea  
eta beste talde bat ariko  
dira. *Pako taberna.*

**ABENDUAK 28 / 21:00****TXULETONS**

Urteroko kontzertua  
emango du Oñatiko talde  
beteranoak. *Antixena.*

**ABENDUAK 29 / 22:30****SUMISSION CITY BLUES**

Blues, folk, country eta  
rockean maisuki mugitzen  
den talde gasteiztarraren  
kontzertua. *Antixena.*

**ABENDUAK 30 / 12:30****BUFFALO**

Zarauzko hirukote instru-  
mentalak disko berria aur-  
keztuko du. *Antixena.*

**ABENDUAK 31 / 00:30****GABON ZAHARREKO DJ  
HERRIKOEN JAIALDIA**

DJ lanak egiteko prest ba-  
zaude, pasa gaztetxetik.  
*Antixena.*

**URTARRILAK 4 / 19:00****HOTS ABESBATZA**

'Angelus' kontzertua, gan-  
bera orkestrak lagunduta.  
*Arantzazuko santutegia.*

**ANTZERKIA****ABENDUAK 9 /****GO!AZEN 5.0**

ETBleko telesailaren an-  
tzerkirako obra berria. Bi  
emanaldi: 16:30 eta 18:30.  
(3€). *Gaztelekua.*

**HITZALDIAK****ABENDUAK 26 / 19:00****ASTRONOMIA**

Ilatargik antolatuta. 'Pla-  
neta-arteko bidaiak. Zer  
sartu maletan?'. Hizlaria:  
Itziar Garate, EHuko Pla-  
neta-Zientzien taldeko ki-  
dea eta fisikan doktorea.  
*Kultur etxea.*

**IPUIN KONTAKETA****ABENDUAK 20 / 18:00****ENEKO HARITZA**

6-9 urtekoentzako saioa.  
Gonbidapenak hilaren  
10etik aurrera.

*Ingelesa guzientzat*  
Neurrira eginiko ikastaroak,  
itzulpen teknikoak,  
itzulpen juridikoak...

**ARANGUREN & LAFLIN**  
Zubillaga 20, 8. bulegoa • garanguren@hotmail.es • Tel. 675709528

**EGUR-LAN**  
ARROZTEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
www.egur-lan.es

## TAILERRAK

### URTARILETIK AURRERA AUTOEZAGUTZA

Nork bere izatea hobeto ezagutzeko tailerra. Hamar saio, hilean bat, urtarrilaren 12an hasita (9:00-14:00). Oñatiko Yoga Eskolaren lokalean (Bidebarrieta, 28). Informazio gehiago: 658 719 086 / lourdescidl@hotmail.com.

## OSPAKIZUNAK

### ABENDUAK 21 / 18:00 TXISTORRA JANA

Txartelak (1€) tabernan salduko dira. **Pake Leku.**

## ELKARTASUNA

### ABENDUAK 15 / 09:00 ELKARTASUN AFARIA

Parrokiko Misio Taldeak antolatuta, Mali-ko (Afrika) proiektuaren alde. **Bidaurretako fraideen etxea.**

### ABENDUAK 15 / 09:00 GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEN AZOKA

Elkar Hezi ikastetxearen eskutik. 'Giza eskubideak guztiontzat' lelopean, GKE ezberdinen lana bertatik bertara ezagutu eta bidezko merkataritzako produktuak erosteko aukera egongo da (09:00-15:00). **Foruen plaza.**

## AUZOLANA

### ABENDUAK 25-26-27 GAZTETXEA TXUKUNDU

eta beste lan batzuk egingo dituzte gaztetxean.



## Hileko gomendioa

1980ko maiatzaren 14an Martin Zabaletak Everest gailurra jo zuen, baina talde lanaren garaipena izan zen balentria hura. Egun hartan, herri oso bat iritsi zen gailurrera. R.Olasagasti-C.Llaguno (Sua Edizioak).

## Komikia



## FARMAZIA

### ANDUAGA

San Lorentzo 3

☎ 943 78 21 16

Abenduak 3, 4, 12, 13, 21, 22, 23, 31 eta urtarrilak 1.

### IGARTUA

Kale Zaharra 1

☎ 943 78 01 22

Abenduak 5, 14, 15 eta 16.

### GARATE

Kale Barria 42

☎ 943 78 05 58

Abenduak 7, 8, 9, 17, 18, 26 eta 27.

### ULDAIN

Kale Barria 6

☎ 943 78 11 28

Abenduak 6, 10, 11, 19, 20, 24, 25, 28, 29 eta 30.

## ZINEA



### Abenduak 6 - 10

#### ZINE KLUBA:

**Ez dago emanaldirik**

#### NAGUSIAK:

**Bohemian Rhapsody**

#### GAZTETXOAK:

**El cascabnueces y los cuatro reinos**

### Abenduak 20 - 23

#### ZINE KLUBA:

**Cold war**

#### NAGUSIAK:

**Animales fantásticos: los crímenes de Grindewald**

#### GAZTETXOAK:

**Ralph rompe internet**

Zine-kluba: Osteguna (20:00)

Nagusiak: Ostirala eta larunbata (22:30) Igandea (19:30 eta 22:30). Astelehena (19:30, ikuslearen eguna).

Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

### Abenduak 14 - 17

#### ZINE KLUBA:

**Alma mater**

#### NAGUSIAK:

**Colette**

#### GAZTETXOAK:

**Udare erraldoiaren istorio harrigarria**



## MERKATU TXIKIA

**ETXEBIZITZA BILA** Oñatiko familia batek etxea alokairuan hartzeko behar du. Deitu: 666 741 493.

**BABIA SALGAI** Duruan baserrian. Deitu 943 782 763 zenbakira.

**GARAJE ITXIA** salgai Olakua 9ko so-toan. 12,98m<sup>2</sup> eta aluminiozko sarre-rako ate berria, eroso eta arina. Oso prezio interesgarria. Deitu konpromiso barik: 626 410 903.

**GARAJEA SALGAI** Ugarkalde auzoan, 5-6 atarietan, 18m<sup>2</sup>. 17.000 euro. Harremanetarako, deitu 647 515 257 edo 610 751 017 telefonoetara.

 **COINBROKER**  
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS


Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 006 ✉ oinati@coinbroker.eus  
🌐 www.coinbroker.eus

 **Amalia Igartua**  
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)  
-Ilogailuen eta 0 kotara proiektuak -Eraikinen mantentze planak (PUM)  
-Jarduera lizentziak -Fatxaden eraberritze energetikoa -Diru laguntzen gestioa

tel: 677 31 20 57 • email: amaliigartua@gmail.com • Oñati

 Jerardo Elortza  
eta Xabier Zelaia



# OÑATI

**KALERIK**  
-  
**KALE**



## Mendiko kalea eta Bakardadeko Ama kalea (I)


Ez dira, ba, bi kale hauek ez luzeak ezta zabalak ere. Hala eta guztiz ere, Oñatiko historian eduki dute euren nortasuna eta garrantzia. **Bakardadekoak**, mendeetan zehar, Zazpibideta eta Santa Marina arteko **lotura-lanak egin ditu**; eta **Mendiko kale laburrak**, berriz, aurrekoaren errebal edo luzapen gisa funtzionatu du, **hainbat ofiziotako langileei kokalekua** eskainiz. Horietaz gain, badira inguru horretan beste gauza jakingarri batzuk ere, ondoren ikusiko dugunez.

### LEHEN AIPAMENAK DOKUMENTU ZAHARRETAN

Erdi Aroaren hondarrean, **1488ko sute izugarriak** Oñati erdi hondatu zuen kalegunean. **Mendikoa zeritzan auzoan ere etxe asko erre** zituela diosku hurrengo urteko dokumentu batek. Horrenbestez, badakigu ordurako bazela inguru horietan etxe-pilatxoak. Ez da harrizkoa, jakina, kontuan izanik gure herriko jauntxo nagusien, Gebaratarren, Zumeltzegiko dorretxera igotzeko galtzada bat hortxe abiatzen dela, kale bien arteko kantoian.

XVI. gizaldiko agirietan behin **baino gehiagotan Mendikoa moduan** agertzen da, obrak edo beste kontu batzuk tarteko direla. Bestalde, San Migel kofradiako dokumentu zehatz batean kideen zerrendak azaltzen zaizkigu, auzorik auzo eta kalerik kale sailkatuta. Mendikoa izeneko kalea dator bertan, baina badirudi Bakardadeko Ama kalea ere bereganatzen zuela sasoi hartan. Eta aurrera jarraitu aurretik, argi dezagun xehetasun bat: **Bakardadeko Ama izendapena XIX. mendekoa dugula, aurretik Bordadores** kalea moduan ezagutua izan baitzen luzaroan.

XVI.aren azken urteetan **izurrite beltza** zabaldu zen Euskal Herrian eta Oñatira ere iritsi zitzaigun gaitz beldurgarri hori.



J. A. Azpiauren *Esa enfermedad tan negra* liburuko marrazkia.

Heriotza ugari eragin zuen 1597 eta 1600 bitartean gure herrian eta baita hemendik kanpora ere. Joxe Antonio Azpiazuk esaten digu, egoera latz hartan, agintariak hartu zuten **erabakietako bat Mendiko kalea alde bietatik erabat ixtea** izan zela, inor handik atera ez zedin. Hilzorian zeudenak pilatu zituzten, nonbait, bertan, beste herritar batzuk kutsa ez zitzaten. Herriko pobreenak izango ziren, seguruenik. Beraz, une haietan **Mendikoa kale madarikatua** bilakatu zitzaigun.

### BORDADORES-ETIK SOLEDAD-ERA

Arestian adierazi dugunez, **Bakardadeko Ama kaleari lehenago Bordadores** kalea deitzen zitzaion. Ez dugu horren arrazoirik eta aztarnarik aurkitu; bitxi samarra ere bada gizakumeen lanbide gisa azaltzea, gerora behintzat batez ere emakumeen zeregintzat hartua izan baita; baina, egia esan, antzina gizonezkoak ere maiz aritzen ziren jantzi eta oihal dotoreetan urrezko brodatu ederrak josten. Horrelakoren batzuk ote ziren?

Kale hau ezagutarazteko, **1726tik aurrera**, gutxienez, erabili zen **Bordadores izendapena**, eta XIX.eko amaiera arte iraun zuela esango genuke, garai batzuetan Mendiko kaleko

esparrua ere bereganatuz. Kontua da, bazela gaur egun kale horretako 11. zenbakia daraman eraikinean **Soledad deituriko etxe bat**. Ez dirudi izena ermita edo santutxuren bati zegokio-nik, baina egia da etxe horretako horman bazela eta badagoela **Ama Birjinaren iruditxo bat**. Hortik datorkio, antza, izena. Bakardadeko Ama adbokazioa Ama Doloretakoaren aldaera bat ei da.

XIX.aren bukaeran, 1896an, kale-izen ugari aldatu ziren Oñatin. Aurreko ataletan sarritan aipatu dugu hori. Orduan **Soledadeko Ama** kalea jarri zitzaion, baina Gipuzkoako dipu-tazioetik zuzenketa iritsi zitzaion Oñatiko udalari: Bakartasuneko Ama kalea behar zuela, nahiz eta gerora **Bakardadeko Ama** nagusitu den.



Soledad etxea azken eraberrikuntzaren aurretik.

### SOLEDAD ETXEAREN BESTE ZENBAIT KONTU

Etxe horri ezkerretik nahiz eskumatik **zati berriak erantsi zitzaizkion XIX.ean**. Ezkerrekoa, egun 9. zenbakia daukana, 1829an eraiki zuen Jose Antonio Olalde arotz-maisuak. **Lorenzo Melendezek denda bat zeukan** bertan 1850ean eta ardoa saltzeko baimena eskatu zuenez, **taberna modukoren bat** egon zitekeen zen. Guk hor urte askoan **Tere Letamendiren janari-denda** ezagutu genuen gerra ostean.

Bakardadeko Ama kaleko 11ko beste aldean, Mendiko kaleruntz, Agustin Guridik, txabola bat zegoen lekuan, eraikin berria jaso zuen 1895ean. Harrezkero etxe horren beheko aldea ia etengabe egon da merkataritza edo ostalaritzari lotuta. Luzaroen irauin zuena **Kuba** deituriko taberna izan zen. **Frantzisko Arregi** oñatiarrak jarri zuen 1895ean, etxea eraiki eta berehala; 1870 aldera Kuban egona zen, eta horregatik ezarriko zion izen hori ardandegari. Teresa alabak eta haren ondorengoek jarraitu zuten taberna-lanetan urte batzuetan; eta gero beste hainbatetan **Biain** familiakoek, 1958an itxi zen arte. Harrezkero, hainbat komertzio eta bestelakoak egon dira edo daude etxepe horretan: **Urrutia** eta **Xauen** arropa-dendak, **Beloki** iturgintza eta **Gu** hizkuntza-eskola, besteak beste.

Kuba oso **taberna popularra** zen; **errementari eta forjarien aterpe goxoa**. Ospetsua egin zen haien esaera: "*Gu egunero faten gaittuk Tetuatenik Kubara itsasua pasau barik*". **Tetuan** oraingo Zubibari kale inguruari esaten zitzaion orduan; han errementeria eta tailer txiki asko zeuden: Zufiria, Aleitar, On-raita, Arrue haruntzatxoago. **Karreteroek ere gustuko zuten** taberna hura. Zera komentatzen zen orduan: itzainek euren lan-jardun astuna burutu ondoren, **egonaldia lasaia** egiten zutela Kuban, **edanean, berriketan edota jokoan**; eta idi-pareek bakarrik topatzen omen zuten etxerako bidea.

Badugu oraindik zer kontatu auzo honetan egon ziren errementeria, banastegin-tailer, arropa-garbitegi (labadero publikoa) edota zerrategiari buruz; baita bertako beste eraikin aipagarri, denda, taberna eta pertsonaien gainean ere. Baina horrek hurrengoan beharko du.



Leona Igartua Kuba taberna aurrion XX. mendearen hasieran.

  
**TABERNA • JATETXEA**  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



# Itten bat

(\*) Itten: arrastua, pistia

## Kontu kontari

### Danoi barkatu, bateri izan ezik

Urrusulako amandria bat, azkenetan eguela, hil biharrian, abadia etorri xakon etxera azken oliaduria emun eta zeozer eskaketako edo barkaketakorik ba ete eukan ittaunketara. Amandriak umorez hartu eben ittauna eta holaxe erantzun otsan:

*Nik danoiri barkaketan dostet, bateri izan ezik!*

Orduan, abadia ezpanak estutuaz buruari eragitten hasi zan amandriak zer botako otsan bilddurrez. Handik apurtxo batera, amandriorek agua zabaldu eta haxe bota eben:

*Arregiko aldapiari etxat sekula barkatuko pasau eragin dostan sufrimentu danak!*

Abadiak hori entzun ebenian, barretxua bota eta nasaitu ederra hartu eben. Uff!!



Arregiko aldapia

## Ezetz asmau

### Lotu auzo bakoitza bere jaixarekin eta jaixori ospaketan dan hillabetiarekin (I)

- |                   |                                |                              |
|-------------------|--------------------------------|------------------------------|
| 1. Arantzazu      | a. Sanlorentzuak               | 1. Agorrian                  |
| 2. Araotz         | b. Santalutziak                | 2. Mariatzian                |
| 3. Aurrekomendixa | c. Berezkorik ez               | 3. Agustuan                  |
| 4. Berezao        | d. Arantzazuko Amabirjiñiarena | 4. *Bagillian                |
| 5. Garagaltza     | e. Sanisidruak                 | 5. Bagillian                 |
| 6. Garibai        | f. Trinidadiak                 | 6. Agustuan (gaur egunian)   |
| 7. Goribar        | g. Sanestebanak                | 7. Berezkorik ez             |
| 8. Larraña        | h. Jesusen Bihotzarena         | 8. Abenduan                  |
| 9. Lezesarri      | i. Sanjuanak                   | 9. *Mariatzian edo bagillian |

\*4 = Korpusa zela jausten dan, haren hurrengo domekan.

\*9 = Korpusa zela jausten dan, haren aurreko domekan.

*Noiz egongo gara? Sanlorentzotan, Santalutzitan, Arantzazuko Amabirjiñiaren egunian, Sanisidruetan, Trinidadetan, Sanestebanetan, Jesusen Bihotzarenian, Sanjuanetan*

## Sinonimuak

### Billatu aditz honein sinonimuak

- |                      |                                |
|----------------------|--------------------------------|
| 1. Larrittu          | A. Antza hartu                 |
| 2. Tentau            | B. Miazkatu                    |
| 3. Arlet egon        | C. Erabaki, zirt edo zart egin |
| 4. Igarri            | D. Azpian egon                 |
| 5. Miaztu            | E. Estutu                      |
| 6. Erabagi           | F. Preso hartu                 |
| 7. Mendan egon       | G. Zirikatu, xaxatu            |
| 8. Mihaztu           | H. Gorde                       |
| 9. Atxilotu          | I. Erne egon                   |
| 10. Zainp(e)ian egon | J. Bakandu                     |

## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



### Oñatiko herritarren parte hartzea Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuan

**E**usko Ikaskuntzak bere **mendeurrena** ospaketako gure herrixan antolatu dittuan batzarrak eta jaixak pasau barri dira. Hurretik ikusi ezpadittuzue be, komunikabidietan agertu diran albiste eta argazkixen bidez enterauko ziñain Oñatin zemendixaren 23an eta 24an egon dan mugimenduaz. **Makiñatxo bat agintari eta personaje** inguratu zan hona.

Antolamendu horretan Eusko Ikaskuntza berak ez ezik, **Oñatiko udalak, San Migel parrokiak, Oñatz dantza-taldiak, udal txistulariak** eta **Artixa kultura-taldiak** be parte hartu daue, neurri desbardiñian. Artixakuak **bi hitzaldi** emun zittuain aurreko egunetan kultura-etxian, eta mendeurrenaren gaiñeko **argazki-erakusketia** montau euen parrokiako klastruan.

Klaustroko erakusketa horretan orain dala ehun urteko **batzarrian berba egin euen hizlarixak**; kongresuan egindako, harrera, **prozosiño, auresku, soka-dantza edota herri-jolasak**; eta sasue haretako **Oñati eta oñatiarren irudixak** agerketan ziran dozenaka fotografixetan. Badakigu kongresistatik aparte, herritar dezente be ikusi dittuala argazkixok.

Ba, gaur **exposiziño horretako fotografixa pare bat** aukeratu dotzuegu. Orain dala gizaldi bateko kongresuan be Oñatiko herrixak parte-hartze haundixa euki ebela gauza jakiña da. Baiña ez agintari eta jauntxuak bakarrik; **oñatiar korrienteguak be saiatu ziran euren aletxua jarten**, 1918ko agorraren lehenengo astian ospatu zan euskal kulturaren inguruko batzar inportante ha ondo atara zedin. Arratsaldeko jai eta ikuskizunen artian, agorraren 5ian ezkontza tradizionalaren agerraldixa erakutsi euen Goribar auzoko neska-mutillak.

Argazki txikiñari erreparaitten baxatzue, **konturatuko zarai kuadrilla majua alkartu zala**. Arboledan atarata dago, Olalde baserrixaren aurrian, plaza aldera urten aurretik; atzian kamiñotik Torrealderaiñoko soro-saillak agiri dira, artian iñolako etxe barik. Plazako fotografixan, berriz, **ezkontzaiaren barruan izaten zan arrio-erakustia** ikusi geinke: ezkonbarrixak eta euren aitta eta ama-puntakuak nahiz testiguak. Atzian, burdi gaiñian, andrageixaren arriua: **koltxoiak, izarak, mantelak, komodia**, eta abar. Hainbeste bider argittaratu dan plazako argazki horretako protagonisten izen batzuk jakittia lortu dogu, han eta hemen galdetuaz. **Goribar-Kasablanka eta Garibai aldeko auzotarrak** dittuzue. Honeitxek ezagutu dittugu ezkerretik eskumara:

**X. X.; Martiña Egaña**, Garibaigoittikua, gero San Pedroko Torrera ezkondu zana; **X. X.**, aittapuntakua [?]; **X. X.**, senargeixa; **Lauriana Beitia**, andrageixa, Kasablankakua, Kerejetarren ama; **Maria Etxeberría**, amapuntakua, Berezaio auzoko Korriunekua zan, ordurako Goribar baserrira ezkondua; **Xexili Egaña**, Errotabarrikua; **Joxe Mari Lizaur**, Goribar baserrikua, gerora Xexilirekin ezkonduko zana; eta burdi gaiñeko ezkerrekua **Tomas Ugarte**, Olaldekoa.

Argazkixak Oñatiko Udal Artxibokuak dira. Guk Joxe Fernandez bidez eskuratu dittugu. Argibide batzuk Maria Luisa Lizaurrek eta Martina Ugartek emun doskue. Ia falta diran izenak identifikaitten lagunketan doskuzuen. Milla esker.

Orain



# Banak importa



**BANAK**

Zerkaosteta, 3

Tel.: 943 71 10 11



zuretako  
zuzenean...

**SOFA LEKU - KOLTXOI LEKU**

Zigarrola, 1

Tel.: 943 79 15 03



grupo  
muebladora  
mondragonesa



centro hogar **MUEBLES**

1956-2016



URTE  
ESKERRIK ASKO !!